

2014ko Azaroa

K

Oñatiko Uteala 244. ekia

KONTZEJUPETIK

ANTONINO IBARRONDOren omenezko Musikegunak

Musikari eta konpositorearen jaiotzaren mendeurrenean

italde

TALDE ERAIKITZAILE - SUSTATZAILEA

OÑATIKO AUKERARIK HANDIENA

- San Martinen
 - Kurtzekuan
 - Kasablankan
- 3 logela + garaje itxia

PREZIO BEREZIAKI!

* zuloz informatzera

➔ Liburutegiko **BERRIAK**

Tel.: 943 71 61 11 | www.euskadi.net/katalogobateratua



HAUR LIBURUA
"Aurretik ondoren"



LIBURUA
"Curso de bordado"



CD MUSIKA
"Ihesaldi handia"



CD MUSIKA
"Taniatank"

Oharra: Liburutegian 62 aldizkari dituzu eskuragarri, gai ezberdinetakoak eta 7 egunetarako etxera eraman ditzakezunak!!



LIBURUA
"El gallinero ecológico"



LIBURUA
"Comprender el vino"



LIBURUA
"Láminas para pintar paisaje"

Oharra: Liburutegian 62 aldizkari dituzu eskuragarri, gai ezberdinetakoak eta 7 egunetarako etxera eraman ditzakezunak!!

HELDUEN LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
10:00 -13:00 / 16:30-20:30
Larun.:
10:00 - 13:30

HAUR LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
16:30 -19:30



TXALOKA Ludoteka

Azaroak 28 ostirala
SUKALDARITZA Tailerra.
Herritar guztiontzat!



ATE IREKIAK egunero.
Hurbildu eta ezagutu gaitzazu!
ASTELEHENETIK OSTIRALERA 16.45-19.45



GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera datu hauek bidali beharko dira: igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 • OÑATI / Tel.:943 78 20 72 / Posta-e: kontzejupetik@oinati.net

3.100 euro BERRIARI

Koldo Zumalde (Berriaren Oñatiko Lagunak)

Txosnaguneko sukaldea BERRIA egunkariaren txokoa izan da, bigarrenez. Haraxe inguratu da makina bat beso, hantxe isuri da izerdia franko, handitxek ase da ehunka urdail goxo; berotik, begitik, bidetik: borondatea.

Ikastetxeak (Herri Eskola, Ikastola, Elkar Hezi, euskaltegia), kuadrillak, anonimoak...; zazpi egunez. Nekea zilarra dela iritzita, sinetsita.

ESKERRIK ASKO

Urtebete pasata, demagogiak ez du etenik

Izaro Igartua

Idoiaga oposizio buruak Iraileko Kontzejupetiken idatzitakoaren harira zehaztopen batzuko.

PNV-k gaikako bilketa eta birziklapena beti defendatu dituela aipatzen duzu ingurumenaren zaintzarekin arduratuta zaudetelako.

Hala bada baduzue lana PNV gobernuan dagoen udal guztiak kritikatzin inork ez baitu lortu %45 gorako gaikako bilketa. Autokritika pixka bat ere egin beharko zenukete, 2011rarte Oñati gobernatzin egonda %27ko bilketa soilik lortu baitzenuten, biltze sisteman aldaketa soil batekin %80ra iristea posible dela herritar guztiak ikusi dutenean.

Legazpi, Elgeta eta Arrasate aipatzen dituzu. Ez al dago PNV agintean dagoen

OHAR ETA DEIALDIAK

► GURUTZE GORRIARENTZAKO DIRULAGUNTZA

Pago Uso elkarteak Debagoieneko Gurutze Gorriari eman dio San Migel eguneko herriko plater tiraketan batutako dirua (500€). Bide batez, Pago Usok eskerrak eman nahi dizkie egun horretako txapelketarako opariak ematen dituzten herriko denda, taberna, lantegi eta erakundeei, laguntza horri esker posible delako era honetako donazioak egitea.



► Kinttadia

1987ko kintoek (1969an jaiok) aurten 45 urte betetzen dituzte, eta hori ospatzeko afaria egitea pentsatu dute azaroaren 15ean, Etxe Aundi jatetxean, Izena emateko, 20 euroko diru sarrera egin behar da Caja Rural Kutxako kontu honetan: ES22 3008 0198 2330 03076720, azaroaren 7a baino lehen. Animo! giro bikaina egongo da eta!.

► Pake-Lekutik esker onez

Pake-Lekuko zuzendaritzak eskerrak eman nahi dizkie urriaren 25ean Oñatin egin zen Gipuzkoako Jubilatuen Martxa arrakastatsua antolatzen lagundu duten herriko enpresa, erakunde eta herritar guztiak.

herri eredugarrik? Hiruretan ordea NAHITAEZKO gaikako bilketa proposatzen dute eta ez PNVk goraiatzen duen BORONDATEZKOA, %45eko gaikako bilketa inon gauditu ez duena. Elgeta eta Arrasaten ikusteko dago emaitza, eta Legazpiarrei dagokionez aipatu gabe utzi duzu guztiak errefusa atez atekoarekin biltzen dutela.

PNVren udalen batetan eredu eraginkor kontrastatu bat duzuenean

ongi etorria izango da, biltze sistema baino bilketa kopurua baita helburua. Bitartean, birziklatzeari dagokionez, etxeko lanetan zentratu, emaitza bikainak lortu dituen gutxiesten saiatu ordez.

Nahi baduzue, Errauskailuaren (444M€) alternatibarekin (131M€) 313M€ aurreztuko dena zertan erabili daitekeen iradoki dezakezue. Osasunean irabaziko duguna zenbatu gabe utziko dugu guztiotzat izango baita onuragarria.



2014 eta 2015 urteetan ezte bazkaria gurean egiten duten **Etxe-Aundi** bikote guztien artean, **Kanariar Uhartetara joateko bi bidai** * zozketatuko ditugu.

* pertsona bakoiti

Informatu zaitez!!

www.etxeaundi.com



Tokiko Gobernuari Galdezka



KOMERTZIOENDAKO LAGUNTZAK

? Udala komertzio txikiari laguntzen ari da azken urteotan, denok jartzen dugun diruarekin. Komertzio horietako batzuen jabeek Oñatiko edozein herritar "arruntek" baino patrimonio askoz ere handiagoa du. Nik, herritar "arrunt" bezala, ekonomikoki lagundu behar diot merkatarari horri? Bestalde, Udalak egin al du azterketarik laguntza horien bidez lortutako emaitzak neurtzeko? Lanpostuen sorrera izan daiteke indikatzaile bat, komertzioetan egindako kontratazio berriak. Uste dut plan guztiek izan behar dutela helburu bat, eta kasu honetan indikatzaileak daude gure dirua komertzio horietan inbertitzeak merezi duen ala ez esango digutenak. Beste gauza bat da gazteei laguntzea enpresa txiki edo komertzioak sortzen. Edo une larria bizitzen ari den komertzio bati laguntzea.

▶▶ Komertzioetako jabeek ez dute diru laguntza zuzena jasotzen udalaren aldetik, aipatu duzun bezala sortutako lanpostu berriagatik ez bada. 2008, 2009 eta 2010. urtean bai jasotzen zuten diru laguntza zuzena abuztuan zabaltze hutsagatik eta bestelako aldagaririk kontutan izan gabe. Gu beti izan gara kritiko laguntza zuzen horiekin.

Hori esanda, herri bizi bat nahi dugu eta hori lortze aldera merkataritza bizia izatea ezinbestekoa da. Norabide horretan

komertzioaren biziberritzeko plan bat burutu genuen eta hortik eratorritako tresnak martxan jartzen ari gara, moneta lokala kasu. Azken ekimen honek zuzenean herritarrentzat ditu onurak eta komertzioak zeharkako onuradunak dira eta ekimenaren kostuak beraien kargu hartzen dituzte.

ERREKARRUA ARBOLAZ JOSITTA

? Bi zubi: Lizaur arkitekto kalekua eta pila fabrikara atzetik sartzekua (Kale Zaharretik). Bi zubixen arteko erreka tartia baso egindda dago, hain dira haundixak eta senduak uberkiaren erdi-erdixan sortutako arbolak! Ur gutxi datorrenian zikinkerixia batzeko eta piztixak ibiltteko lekua da, eta ur haundixak datozeñian, berriz, kaltiak eragitteko arriskua dago. Zeifñena da errekarria garbiketako arduria?

▶▶ Erreka arroa garbi mantentzeko ardurua Eusko Jaurlaritzaren URA agentziarena da. Esana diogu toki horretako eta beste batzuetako egoerak aztertu eta neurriak hartzeko eta maiztasun jakin batekin burutzen dute. Dena den, herritarraren ustean zuhaitz eta landaretzak sarri arrisku suposatu ahal duten arren, ibaiertzeko basoen landarediaren kudeaketak onura nabarmenak ere ekarri diezaiok ibai- ekosistemaren egoerari eta hori kontutan izanda hartzen dituzte neurriak.

PERTSONA NAGUSIEN ZAINTZARAKO ZERBITZUA



Tfn: 943 71 84 79

bidebarri@terra.com

iurrutia.bidebarri@gmail.com

ADMINISTRAZIO LANAK

-Kontratua egitea

-Gizarte Segurantzaren alta ematea

-Nominak egitea

HAUTAGAIEN AZTERKETA

-Enpresako konfidantzazko langileak

-Esperientziadunak

oposiziotik

Lourdes Idoiaga - EAJ

2015eko ORDENANTZA FISKALAK

Urtero, urriko udalbatzan, datorren urtean indarrean jarri eta eguneratuak izaten diren udal zergak adosten dira, oraingoan 2015eko urtariletik aurrera ezarriko direnak izan ditugu hizpide.

2015eko udal zergei dagokienean, Bilduko udal gobernuak ez du aldaketa garrantzitsurik proposatu eta zergak izoztea mahaigaineratu du, urte arteko KPIa zertxobait negatiboa delako. Bat gatoz zergak izoztearekin eta baita proposatu dituzten aldaketekin ere.

Aitzitik, "etxebizitza hutsei" ezarritako Ondasun Higiezinaren gaineko %100 zerga mantentzearen aurka gaude. Neurri honekin ez da etxebizitza hutsen alokairua sustatzea lortu, eta gainera, zenbait kasutan zergaren ordainketak bidegabekeriak eragiten ditu. Hori gertatzen da, adibidez, etxebizitzak bizigarriak izan daitezela, alokairuan jarri ahal izateko aurretik inbertsioak egin behar dituzten kasuetan.

"Etxebizitza hutsei" Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren %100eko errekarua mantentzearen aurka gaude. Ez du etxebizitza hutsen alokairua sustatzea lortu, eta zenbait kasutan bidegabekeriak eragin ditu

Ilido horretatik, EAJ-PNVk aipatu zerga deuseztatzea proposatu du etxebizitzek edota eraikinek oinarritzko bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituztenean. Hasiera batean Bilduko udal gobernuak negoziaketarako borondatea azaldu zuen eta gu prest ginen aukera desbedinak aztertzeke zerga bidegabekeriak aplikatu ez zedin, baina azkenean ez da akordioa lortu eta gobernuak zerga ez deuseztatzea erabaki du.

Halaber, ez gaude ados zaborrei dagokien udal zerga izoztearekin, izan ere, azken hiru urteetan udal diru kutxan defizita eragin baitu. Aipatu zergetan ditugun desadostasunengatik eta azken orduan gobernuak atzera bota eta beren hitza bete ez izanagatik bozkatu dugu aurtengoan ere aurka.

gobernutik

Xabi Pico - Bildu

1196 km, 40 MINUTU

Gobernu ardurak hartu genituenetik herriko 4 preso politikoak bisitatzeke konpromisoa hartu genuen. Orduz geroztik 25 bisita izan dira alkate eta zinegotziok binaka eta presoak txandakatuz burutu ditugunak.

Aurreko asteburuan beste kide batekin Galizian dagoen Alberto oñatiko semea bisitatzen egon ginen.

598km-tako joaneko bidaia ondo egin genuen, nahiz eta Burgosetik Leonerako tartean behe-laino itxi-itxia zegoen eta kontu eta tentsio handiagok joan beharra izan.

Albertorekin lehen hitzak bidaiaren ingurukoak izan ziren. Ondoren bere osasun egoeraz eta gerrian egin zuen luzamenduaz. Jarraitzeko, bezperan euskal memoria taldeak euskarak jasari duen zapalkuntzari buruz egindako antzezlanaz aritu ginen eta euskararen aldeko borrokan besoak gurutzatuta gelditzerik ez dagoela aipatu zigun, EAJK Berriari murriztutako laguntzak eta Ziburuko alkatea bertako ikastolarekin egiten ari dena izan genuen aipagai.

Gobernu ardurak hartu genituenetik herriko lau preso politikoak bisitatzeke konpromisoa hartu genuen

Ondoren udal berriak: Eltzia, Txantxia, bidegorria,... arretaz jarraitzen ditu bere jaioterriko notiziak. Beste tarte batez datozen urteko hauteskunderiez: nola doan antolaketa, herri mugimendua, lan taldeak, parte-hartzea,... Bukatzeko, beraien egoera larria: egoerak ez duela hobera egin, Euskal Herriratze eskaeren aurrean ezetza jaso dutela, Frantziar estatuan egindako kartzela urteak kontatzeko erantzunaren zain jarraitzen dutela, erredentzioak kendu dizkiotela,...

Hor eten da lokutorioko bi aldeak lotzen duen soinu sistema. Amaitu da. Kristalak kolpatuz eta besoak gurutzatuz besarkadak irudikatu eta begi ertzetaraino malkoak iritsiak ditugula agurtu gara. Guztia 40 minutu eskasean. Berriro 598km-tako bidaia zain.

Beharrezkoa eta urgentea da egoera bidegabe honekin amaitzea eta gatazkaren ondorioen atalari fundamentuz heltzea. Dispertsioaren aurkako SARE herritarrek "Dispertsioaren liburuxkak" argitaratu ditu, dispertsioarekin amaitzeko bideari ekiteko tresna gisa. Guztiok elkarlanean, nik zurekin, hark honekin,... dispertsioaren liburuxkak saretuz mundu osoari dispertsioa ezagutarazi behar diogu.

Bitartean, gobernutik herriko semeak bisitatu eta herriko berri ematen jarraituko dugu.


Besarkada bana hemendik Alberto, Joseba, Xabier eta Xabini!

KONTZEJUPETIK

ARGITARATZAILEA Oñatiko Udala **ZUZENDARIA** Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA Aratz Losada **DISEINUA ETA MAKETAZIOA** Aratz Losada
KOLABORATZAILEAK Jerardo Elortza **SAILAK**
Etxagok Ama Begira (Gaztelekua) **INPRIMATEGIA** Gertu
TIRADA 5.500 ale **LEGE GORDAILUA** SS-357/91

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa • 20560 -OÑATI

Tel.: 943 78 20 72 • Faxa: 943 78 22 53

Posta-e kontzejupetik@oinati.net • Publizitatea: 
publi@oinati.net



TXISTUA ETA HERRIKO JAIK

Amaitu berri diren herriko jaietan egiazatu ahal izan dut gure herriko txistulari taldeak parte-hartze URRIA duela.

Lehen ohikoa izaten zen txistulari taldea goizean goiz irtetea herritarrek iratzartzera IRIARENekin, bai San Migel bixamon egunean eta baita Errosariokoan ere, kaleak giroten zituztelarik, musika bandak bezalaxe, bere kalejira ospetsuekin.

Faltan bota ditut Iriarte anaien HABANERAK, (Debagoieneko txistularien lana goratu zuen bikote bikaina), eta faltan bota dut, baita ere, 'ZEZENAK DIRA' doinua sokamuturra garaian. Sokamuturra eta txistua, txistua eta sokamuturra, ondo konpontzen den senar-emazte bikote bat bezalakoak ziren, eta, aldiz, txisturik gabeko sokamuturra "eguzki bariko eguna bezalako da" lagun batek esaten zidan bezala.

Hotel Onako taberna izan genuen garaitik gogoratzen dut, nostalgiaz, txistulari taldeak joaldi bat eskaintzen zuela tabernan, eta nire aitak mokadu bat eskaintzen ziela. Txantxiku Txoko elkartearen ere beste hainbeste. Ederra izaten zen.

Gogoan dut, baita ere, txistularien osagarri,

Lizarrako dultzaineroak etortzen zirela urtero. Zein polita izaten zen dultzainen soinua entzutea! Orain ez dira agiri.

Esan dezadan, balorazio hau egiten dudala kanpoan bizi den 'Txantxiku' baten ikuspuntutik, eta erratuta egon niteke, baina uste dut agerikoa dela galdu egin dela kaleko giroa. Zerbait falta zait...

Eta ausartuko nintzateke esaten, hau ausardia nirea, hutsune edo gabezia honen atzean hutsune instituzionala eta txistularien utzikeria dagoela; izan ere, eskuartearen bestelako lanak dituztelako ez diote txistuaren printzipioei eusten eta horrela galarazten dabilta jaien muina eta indar gunea izan dena.

Eta, hala, nahiko nuke hemen azaldutako guztia onerako izatea; herriko jai-egitarauaren atzean dauden pertsonen har dezatela kontuan esandakoa, eta dagozkien neurriak hartu.

Iritzi-tarte honetatik esan nahi dut, gustatuko litzaidakeela geure-geurea dugun txistuak bere lekua izaten jarraitzea, eta berau indartzea herriko erakunde eta talde guztien artean. Entzun ditudan komentarioen harira, uste dut jende askoren nahia eta sentimendua jasotzen dudala.




Fernando Mendiguren
Perratzaile

“Erratuta egon naiteke, baina uste dut agerikoa dela galdu egin dela kaleko giroa”

Duela lau hilabete Gasteizko alkate Maroto jauna bazterrak nahasten hasi zen, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE/RGI) inguruan dagoen ustezko iruzurra salatuz, inolako frogarik aurkeztu barik. Aljeriar eta marokoar jatorriko herritarrek zuzenean seinatu, eta hauei leporatu zien "gizarte-laguntzen kontura bizi direla, lan egin edo integratzeko inolako interes barik". Bere lagun eta Arabako diputatu nagusi Javier de Andrés jaunarekin batera kanpaina bat bultzatu du gizarte-laguntza hauek jaso ahal izateko baldintzak gogortu, (errolatuta egon beharreko denbora luzatu, eta aurrez Gizarte Segurantzaren kotizatu izana) eta, hala, etorkinen kolektiboa kaltetzeko.

DBE/RGI delakoa gizarte babeserako sistema bat da, duela hogeita bost urte ezarri zena Euskadin, pobrezia aurre egiteko helburuarekin. Aitzindaria estatu espainiarrean, eta begi onez ikusia Europan. Euskadiko pobrezia tasa estatuko baxuena izatea ahalbidetu du Europako parametroetan jarritz. Eta alderdi politiko guztiek, PPK salbu, uste dute nahiko ondo funtzionatzen duela, eta iruzur tasa minimoa dela. Euskadiko SOS Arrazakeriak ohartarazi du kanpaina honen atzean eskuin muturrak zabaldu nahi duen ideia dagoela, Europan asko hedatu dena, eta hauxe dioena: "bertakoak daukala lehenetasuna etorkinen kolektiboaren

MAROTOREN GERRA



Joxe Ruiz

“Ez utzi engainatzen! Elkartasunak behera egiten duen lekuetan desberdintasunak eta pobrezia gora egiten dute, eta desagertu egiten dira justizia eta bizi-kalitatea”

aurrean. Maroto ere horixe bera eskatzen ari zaio Euskal Gobernuari, hau da, diskriminaziorako faktore etnikoa (pertsonek jatorria) sartzea, orain arte ez zegoena.

Orain Maroto jaunak "kaleko indarrak" (halaxe deitu dio berak) baliatzea erabaki du, sinadurak batu eta Herri Ekimen Legegile (HEL) baten bidez DBE/RGIa jasotzeko aukerak murriztuko dituelakoan.

Harriztekoa da bide hau hautatu izana murrizketak bultzatzeko, eta zer pentsatua ematen du, Eusko Legebiltzarrean eserleku duen eta, beraz, proposamenak zuzenean

egin ditzakeen Maroto jaunak mekanismo edo bide geldoena hautatu izana presazkotzat jotzen duen arazo bat konpontzeko. Jakinik, gainera, HELa (30.000 sinadura behar dituena) herritarren eskura jarritako lege-tresna bat dela, legebiltzarrari proposamenak egin ahal izateko, eta berau modu iruzurti edo pozoigarrian erabiliz gero, jendearen haserrea areagotu baino ez duela eragingo.

Garbi dago ez gaudela Maroto jaunaren burutazio baten aurrean, PPren hauteskunde kanpainaren ardatza izango denaren aurrean baizik, itxura guztien arabera hurrengo foru eta udal hauteskundeetan izango dituzten emaitza kaskarren aurrean, kontuan hartuz zein kudeaketa gaitasun txarra erakutsi duten krisiari aurre egiteko, zein ekarpen eskasa egin dioten bake eta normalizazio prozesuari, eta ongizateari ezarritako etengabeko murrizketetan duten erantzukizuna. Eta ia ziurtzat eman daitekeen deskalabru elektoralaren aurrean, inozoren batzuk engainatzen saiatuko dira, etorkinen kolektiboan bilatuz beraien porrotaren errudunak, modu horretan gizarte desberdintasunak eta pobrezia areagotuko badute ere.

Ez utzi engainatzen! Elkartasunak behera egiten duen lekuetan desberdintasunak eta pobrezia gora egiten dute, eta desagertu egiten dira justizia eta bizi-kalitatea.


PIKAROKERIA ETA DELITUA

Egun hauetan Gasteizko hiritarrak eta komunikabideak oso urduri agertu dira alkateak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan (RGI) aldaketak eskatzeko herritarren artean sinadurak biltzen ari dela ezagutu denean. Eta ez zaie arrazoirik falta.

Ekimen honekin oso sentsibleak diren gauzak nahasteari ekin dio, alderdiko egoera txarrari buelta eman nahian, datozen hauteskunderako botoen bila. Ez dakit zenbat bereganatuko dituen, agian ez asko, baina ekimenaren ondorioak oso larriak izan daitezke.

Kultura ezberdinen arteko elkarbizitzak izugarritzko lana eta arreta eskatzen du, elkar ezagutza eta borondate politikoa, bereziki krisi garaian eta pobreziak gizartearen sektore batzuk gogor erasotzen dituen.

Eusko Jaurlaritzak duela 25 urte ezarritako Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI), 65 mila pertsonengana heltzen da eta, egonkortasun soziala eta elkarbizitza



Luis Guridi



Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI) egonkortasun soziala eta elkarbizitza bideratzeko gutxieneko eta ezinbesteko tresna bihurtu da

bideratzeko, gutxieneko eta ezinbesteko tresna bihurtu dela esan daiteke. Hau haustek, kalkulatu ezinezko gizarte konfliktua eta ezegonkortasuna ekarriko luke. Suaz jolastea arriskutsua da eta kasu honetan onartezina. Horretan adostasun zabalagoa dagoela dirudi oraingoz behintzat, zorionez.

Pikarokeria betidanik egon da gizartearen, europar hegoaldeko herrialdeetan bereziki, eta gainera gauzak hobeto zein okerrago egon direnean. Ez da erraza izango desagertzea, kultura aldaketa bat eskatzen baitu. Baina hau ez da delitutzat jo behar, iruzur fiskala, diru publikoarekin geratzea, edota guztion diruarekin txartel beltzak erabiltzea diren bezala.

Zorionez, alderdi politiko guztiak –PP izan ezik–, aho batez astakeri honen aurka agertu dira, bat datoz horrelako portaerei atea itxi behar zaiela esatean. Baina, seguruenez, ez da azkeneko saiakera izango, zoritxarrez.

BIZITZA

Adolfo Bioy Casares idazle Buenos Aires-tarrak (1914-1999) hauxe kontatzen du bere apunteetan: "Aberatsen etxe batean neskame lanak egiten zuen sukaldaria ez zen ezkondu, horretarako astirik ez zuelako izan. Gaztetatik eta urte askotan, etxe horretako nagusiak hamabostaldiro bi ordu besterik ez zion libre uzten kanpora ateratzeko. Bi ordu horietan, 38 zenbakidun tranbian senideren batzuegana joaten zen, Espainatik bere familikoen berririk jasotzeko itzaropenarekin. Berriro etxeratzen zen 38 tranbian. Besterik egin gabe, etxera iritsita, bi orduak beteta zituen".

Ez da zaila neskame horren bizitzaz jabetzea. Hemen ez da gerrak, lurrikarak, heriotzaren kolpeko danbatekoen sofrimendurik azaltzen. Beste era edo modu batekoa da sufrimendua. Errukirik eta kupidarik gabeko egoera latza, gatxa, gogorra eta astuna da. Mikel Laboaren "Nere ama hil zait lanak itota... izeba ere era berdinean hil zait..." abestiak dioenari afektibitate ezaren sufrimendua gehitzen zaio. Lana sendo, etxe zuloan sartuta, ezkondu ezin, barruko sentimendurik barnerago kokatuak, ateraezinak eta oxigenatu gabeak, nahi gabeko eta onartu

gabeko amatasunaren eta gorputz goxotasunen ezintasunek dakartzaten min sakona barruan.

Bioy Casaresen apunte hau irakurrita, han itsasoz bestaldean gertatutakoa dirudi. Gurean ez ei da, ez omen da horrelakorik ezagutu. Baina "Jauntxoak eta Señora Damak" Euskal Herri osoan egon dira, eta hauen etxe aberats eta erdi aberatsetan lana egindako neskame ugari gelditu dira ezkondu gabe; edo gaurko hitzekin esanda, maitasunerako lagun kuttunik gabe. Nagusiaren etxe bertan bizi beharrak, kanpoan igarotzeko izan duten asti urriak eta lanaren menpe egonak neskame askori ezkontza aukerak eta afektibitatea ezereztu zizkien.

Kontu hauek ez dira oso aspaldikoak, gure aurreko belaunaldiak nozitutako edo sufritutako errealitate gordina adierazten dute. Baina gaur egun eskubide askoren galtze prozesua ikusita nork daki gertatzen ari diran atzerapauso ugariak noraino eramango gaituzten. Ez dugu ahaztu behar esatera ezagunaren irakaspena: "Harri berean bi aldiz estropozu eta erortzen den animalia bakarra gizakia da".



'Jauntxoak eta Señora Damak' Euskal Herri osoan egon dira



Bittor Madina



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak



Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

51a. Mailna, 6
Tel. 943 78 02 21

BUNALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRIA ENPOTATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Larreaña buzoa: 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
ONATI



Bazterriko ogi o. egurrezko liburu

Txantxiak eskuratzeko Truke-Bulegoa zabalik

TRUKE BULEGOAREN ORDUTEGIA

- GOIZEZ
astelehen, asteazken
eta ostegunetan
11:30-13:30
- ARRATSALDEZ
Asteartetan
15:00-17:30

Udaletxeko behe solairuan,
herritarrentzako arreta gunean
dago truke bulegoa

TRUKE-BULEGOA IREKI DU UDALAK, HALA NAHI DUTEN HERRITAR GUZTIEK TXANTXIAK ESURATU AHAL IZATEKO

Urrian zehar herritar gutxi batzuek izan dituzte txantxiak eskutan; jaixak tarteko, Udalaren sari edo dietaren bat jaso dutenek bakarrik. Danera, 20.000 txntxi inguru jarri ditu Udalak zirkulazioan, eta, bide batez, merkatariek moneta berrira egokitzen joateko aukera izan dute.

Baina azaroarekin batera Truke-Bulegoa zabaldu du Udalak eta, beraz, hemendik aurrera edozein herritarrek izango du txantxiak eskuratzeko aukera. Truke bulegoa zabalik egon zen lehen egunean 1200 txantxi eskuratu zituzten herritarrek. Truke bulegoa udaletxeko harrera gunean dago.

%5eko SARIA Txantxiak erostean

Txantxia herritarren artean ahalik eta gehien zabaltzeko helburuarekin, herritarrok %5eko deskontu edo hobari zuzena jasoko dugu txantxiak eskuratzen ditugun momentuan bertan; hala, esate baterako, 100 euroren truke 105 txantxi jasoko ditugu.

%5eko sari horretaz gain, moneta sozialaren proiektura atxikitako establezimenduek txantxiaren erabilera promozionatzeko urtean zehar antolatuko dituzten deskontu osagarri eta eskaintza berriez baliatzeko aukera ere izango dute txantxien erabiltzaileek.

Udaletxean egongo den Truke Bulegoan eskuratu ahal izango ditugu txantxiak. Erosketa edo eragiketa bakoitzean gutxienez 20€ eta gehienez 500€ aldatu ahal izango dira. Herritar bakoitzak gehienez 500€ aldatu ahal izango ditu hiruhilabete bakoitzeko.

Erosten ditugun txantxiak Oñatiko moneta sozialaren proiektura atxikitu diren 91 establezimenduetan gastatu ahal izango ditugu. www.oinati.eu/Udala webgunean dago ikusgai proiektura atxikitako denda, ostatu eta zerbitzuen zerrrenda.



Txantxiarekin DENOK IRABAZLE

Txantxiaren erabilerarekin denok irabazten dugu. Alde batetik, herritarrok %5eko hobaria jasotzen dugu eta, beraz, gure eros-ahalmena handitzen da. Herriko merkatariek ere irabazten dute, gastu-ihesa mugatzen delako eta, beraz, bezero berriak erakarri eta emaitzak hobetzeko aukera dutelako.

Gainera, herriarentzako onura soziala ere ekarriko du moneta berriak. Txantxien erabilerari esker gizarte fondo bat osatuko baita, elkartasun proiektuak garatzera bideratuko dena.

Txantxi moneta sozialaren proiektua Udalak eta herriko merkatariek sortu dute elkarrekin, 'Elkarri Lagunduz' proiektuaren barruan, gastu-ihesa mugatu eta tokiko merkataritza eta ekonomia indartzeko helburuarekin. Danera, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu arloko 91 establezimenduk egin dute bat proiektuarekin.

Kanposantuko eskailera-igogailua erabiltzeko giltza udaletxean eska daiteke

Udalak eskailera-igogailu bat jarri zuen kanposantuan, hilerriko bi zati nagusiak modu irisgarrian komunikatzeko.

Eskailera-igogailua erabili ahal izateko giltza baten beharra dago, segurtasuna eta erabilera egokia bermatzeko.

Hori horrela izanik, mugikortasun arazoak dituzten eta kanposantuko beheko eremuan hilobi bat duten herritarrek udaletxean eska dezakete giltzaren kopia bat.



'Menua euskaraz' kanpainako sariak banatu ditu Euskara zerbitzuak

Menuak eta kartak euskaratzeko eta bezeroekiko tratua euskaraz izatea bultzatzeko, 'Etxe honetan Menua Euskaraz irakur dezakezu' izeneko kanpaina jarri zuen abian Euskara Zerbitzuak herriko 14 taberna eta jatetxerekin batera. Ostalaritzan euskararen erabilera sustatzeko kanpaina honen bidez, menuak eta kartak euskaraz jartzeko laguntza jaso dute hala eskatu duten taberna eta jatetxeek. Kanpainen zehar menua euskaraz eskatu zuten bezeroei zozketa batean parte hartzeko txartel bat ematen zion tabernariak. Horrela, 1000 bezerok baino gehiagok parte hartu dute zozketan. Argazkian saridunak ageri dira, **Tiago Gonçalves** Aloña-Mendi tabernako arduraduna eta **Leire Etxenagusia** bezeroa, 150na Txantxi jasotzen.



150na txantxi jaso dituzte saritan

IRAUNGITZE DATA

Tokiko monetaren zirkulazio handiagoa sustatzeko helburuarekin, txantxiak iraungitze edo kaduzidade data izango dute. (Billetearen atzeko aldean adieraziko da).

Urtean lau data egongo dira: abenduaren 31n, martxoaren 31n, ekainaren 30ean eta irailaren 30ean. Beraz, erabiltzaileok hiru hilabete izango ditugu txantxiak gastatzeko. Adibidez, orain erosten ditugun txantxiak abenduaren 31 baino lehen gastatu beharko ditugu.

Bestela, iraungitze data bete eta ez baditugu txantxiak gastatu, bilete horien kaduzidad data berritu egin behako dugu udaletxeko truke-bulegoan, eta horrek penalizazio txiki bat izango du, billetearen balioaren %3koa hain zuzen. Modu horretan batutako dirua gizarte-funtsera bideratuko da.

Hlruhilabete bakoitzeko azken hilabetean erositako txantxiak hurrengo hiruhilabetea amaitu arte erabili ahal izango dira. Adibidez, abenduan zehar erosten ditugun txantxiak ez dira abenduaren 31n iraungiko, martxoaren 31n baizik. ■

FOTO-DEPILAZIOA IPL SHAZTEZISA
30€
AZALEKO GARBIKETAK 15€
OPARI TXARTELAK

not+vello
Olakua 1B
943 71 67 13

2015eko udal zerga eta tasak izoztea erabaki du udalbatzak

► Datorren urterako zerga ordenantza onartu du udalbatzak, Bilduren aldeko eta EAJren aurkako botoz. ► Jeltzaleak ez daude ados etxebizitza hutsei kontribuzioan aplikatzen zaien %100eko errekaruarekin, ez eta zabor tasa izoztearekin ere.

2015erako udal zerga eta tasen ordenantza onartu zuen udalbatzak urriaren 30eko osoko bilkuran, udal gobernu taldearen (Bildu) aldeko eta EAJren kontrako botoz.

Irizpide orokor bezala, udal zerga eta tasak bere horretan mantentzea erabaki du Bilduk, salbuespen txiki batzuekin. Oñatin, normalean, urte arteko KPI edo kontsumo prezioen indizea hartu ohi da erreferentzia bezala, eta kontuan hartuz iazko abuztutik aurtengorako Hego Euskal Herriko KPIa negatiboa izan dela, zerga ordenantza izoztea erabaki du gobernu taldeak.

EAJk adierazi zuen ados dagoela datorren urteko zerga eta tasak izoztearekin, baina ez du begi onez ikusten hutsik dauden etxebizitza guztiei OHZ/IBI (Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga) aplikatzen zaien %100eko errekaruarekin, ez eta Zabor tasa izoztearekin ere.

ETXEEN BIZIGARRITASUNA EZTABAIDAGAI

EAJk uste du hutsik dauden etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak kontuan hartu behar direla, OHZ/IBI zergan %100eko errekarua aplikatu ala ez erabakitzeko. Jeltzaleen ustez, hutsik dauden hainbat etxek ez dituzte oinarritzko bizigarritasun baldintzak betetzen, eta inbertsio handia egin beharko lukete alokairuan jarri ahal izateko. Beraz EAJk uste du ez dela bidezkoa halako kasuetan %100eko errekarua aplikatzea.

Bilduk ere begi onez ikusten du EAJren

BIZIGARRITASUNA
EAJk proposatu du hutsik dauden etxebizitzaren bizigarritasun egoera neurtzea kontribuzioan %100eko errekarua aplikatu ala ez erabakitzeko. Bildu ere ados dago proposamen horrekin, baina ez dira ados jarri bizigarritasuna neurtzeko irizpideetan

planteamendua, baina ez dira ados jarri bizigarritasuna neurtu ahal izateko irizpideetan.

EAJk proposatu zuen etxeen balio katastrala hartzea erreferentzia bezala, baina Bilduren ustez, balio katastralean ez da etxearen benetako egoera islatzen.

Bizigarritasuna neurtzeko beste bi aukera ere aztertu dituzte. Batetik, aditu baten txostena aurkeztu ahal izatea; baina hori oso garestia izan liteke. Bestalde, udaleko Hirigintza zerbitzuko teknikariek txostena egiteko aukera ere jarri dute mahai gainean, baina hauek ez dute beren burua gai ikusten halako baliozta-penik egiteko.

Beraz, etxeen bizigarritasuna neurtzeko bitarteko egokirik zehaztea lortu ez denez, gobernu taldeak %100eko errekarua hutsik dauden etxebizitza guztiei aplikatzen jarraitzea erabaki du. Iaz 400 bat etxeri aplikatu zitzaion.

EAJk esan du kontribuzioan aplikatzen den %100eko errekaru honek ez duela alokairua sustatu.

ZABOR TASAREN INGURUKO DESADOSTASUNA

Zabor tasa izoztea ere ez du begi onez ikusi EAJk. Jeltzaleek gogoratu dute Mankomunitateak %6,4 (2013) eta %10eko (2014) igoerak aplikatu dituela (2015ekoa zehaztu barik dago oraindik), eta Oñatiko udalak herritarrei igoerarik ezarri ez dienez, Udalak bere kutxatik ordaindu behar duela urtero 200 mila euro inguruko defizita.

TASA BERRIAK ETA ALDAKETAK

MAHAI ETA AULKIAK

●Udalaren mahai eta aukien alokairuan tasa berri bat ezartzen da, materiala itzultzen ez denerako : 90€-koa mahaien kasuan, eta 18€-koa aukietan.

HILERRIA

●Hilerriko zerbitzuan bi tasa finkatzen dira: hilkutxa sartzeagatik 21,71€, eta ateratzeagatik 21,71€koa.

EUSKALTEGIA

●Euskaltegiko matrikulan salbuespena edo hobaria izateko dauden baldintzen artean, erroldari dagokionez ez da antzinasunetik eskatuko.

BASERRIETAKO OBRAK

●Baserrietako obretan hobia eskuratu ahal izateko eskatzailea baserrian erroldatuta egon beharko da eskaera egunean eta hurrengo 5 urteetan.

UDALAREN BAXERA

●Udalaren baxera eskatutako lekura eraman eta jasotzeagatik 20€-ko tasa ezartzen da (40€ igande eta jai egunetan).

KIROLAK

●Larrañako futbol zelaiko argiteriaren erabilera tasa finkatu da: 6€/orduko

●Fitness arloko ekintza osagarrietan eta *master class* erakoetan, 3€-ko tasa ordaindu beharko dute ikastaroetako erabiltzaile ez direnek baina kiroldegiko bazkide direnek, eta 5€ ikastaroetako erabiltzaile ez direnek.

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta eikarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak

GAKO
Garbiketa eta konponketa

653 70 45 47
Oñati

PINTURAS URBIA MARGOAK

Arantzasuko Ama, 19A - IA • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

HERRI ARTEKO AUTOBUS ZERBITZU BERRIA AURKEZTU DU FORU ALDUNDIAK

Oñatik orduerdiroko konexioa izango du Arrasate eta Zumarragarekin

- ▶ Urtebeteko partehartze prozesuaren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak **2015eko hasieran** jarriko du martxan herri arteko autobus zerbitzu berria.
- ▶ Ordurako **San Prudentzioko** geltokia ere egokitu egingo du diputazioak.

Herriarren ekarpenak eta eskariak kontutan hartuta, 2015eko urte hasieran martxan jarriko den herri arteko autobus zerbitzu berriaren ezaugarriak ezagutzera eman ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Gogoratu, iazko urrian jarri zela martxan Gipuzkoako hainbat eskualdetako autobus zerbitzua hobetzeko parte hartze prozesua. Ordutik hona Gipuzkoako 56 herritan egin dira bilerak bi fase ezberdinetan, herriarren eta tokian tokiko udalen iritzia eta proposamenak jasotzeko. Danera, 5.000 herritarrek baino gehiagok



5.000

herritarrek baino gehiagok egindako ekarpenak hartu ditu kontuan Aldundiak autobus zerbitzu berria diseinatzako

egindako ekarpenak jaso dituzte, eta horiek kontuan hartuta prestatu du Aldundiak urte berriarekin batera martxan jarriko duen autobus zerbitzu berria.

Laburbilduz, esan daiteke diputazioak apustu indartsua egingo duela kalitatezko autobus zerbitzua eskaintzeko asmoz. Kilo-metro kopuruari dagokionez, autobusek gaur egun baino 5 milioi kilometro gehiago (21 milioi guztira) egingo dituzte, eta Aldundiaren inbertsioa %36 igoko da (25 milioi eurotik 31ra), 57 lanpostu gehiago sortuz.



Larraitz Ugartek aurkeztu zuen autobus zerbitzu berria

» LARRAITZ UGARTE

Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako diputatua

“Aldundiak apustu inportantea egingo du kalitatezko autobus zerbitzua eskaintzeko”

Jendearen beharretara egokitutako zerbitzua diseinatu asmoz, partehartze prozesua jarri zenuten martxan orain dela urtebete. Zer nolako balorazioa egin duzue?

Oso positiboa. 5.000tik gora herriarren ekarpenak jaso ditugu, bilera presentzialen bidez edo idatziz. 56 herritan egin ditugu bilera irekiak. Ahalegin berezia egin dugu sektore bereziengana iristeko, eta tokian tokiko udalekin ere

landu dugu gaia.

Oso prozesu interesgarria izan da. Argi geratu da, bere eguneroko bizitzarekin lotura duten gaien inguruan galdetzen badiozu, jendea parte hartzeko prest dagoela.

Oro har, herritarrek egin dituzten ekarpenen %75 onartu ditugu. Gainerako %25ean, prozesu honekin zuzenean lotuta ez zeuden ekarpen

(12. orrira)





interesgarriak zeuden eta kontuan izango ditugu beste prozesu batzuetan.

%36 igoko da (25 milioi eurotik 31ra) Aldundiaren inbertsioa autobus zerbitzua hobetzeko. Apustu inportantea da.

Bai. Kilometro kopuruari begiratzen badiogu, autobusek gaur egun baino 5 milioi kilometro gehiago (21 milioi guztira) egingo dituzte.

Horrez gain, webgunea (www.lurraldebus.net) ere berritu dugu, informazioa hobetzeko; zerbitzuen arteko loturak eta intermodalitatea hobetzeko ahalegin handia egin dugu, eta geltokiak berritzeko plana ere esku artean dugu.

Jendeak garraio publikoa erabiltzea nahi dugu, eta horretarako kalitatezko zerbitzua eskaini behar dugu, eta horretan dihardugu. 2011tik hona hainbat lineatan egin ditugun hobekuntzei esker %10 hazi da bidaiari kopurua (19 milioi bidaiaritik 21era), eta bide horretan jarraitu nahi dugu.

Autobusek gaur egun baino 5 milioi kilometro gehiago egingo dituzte. Aldundiaren inbertsioa %36 igoko da.

Apustu inportantea egitera goaz, bai, eta espero dezagun bi urte barru erabilera datu positiboak aurkeztu ahal izatea.

Debagoiena eta Oñatiri dago-kienean, zein hobekuntza azpimarratuko zenituzke?

Hiru linea zirkularren bidez eskualdeko herrien arteko konexioa hobetuko dugu. Arrasate eta Bergara arteko ardatzak 15 minutuan behin izango du lotura. Hiriburuekiko loturak hobetu ditugu (batez ere Gasteiz eta Donostiarekin, Bilborekin ere bai zerbait), eta berritasun moduan, udaldian Debara joateko linea berria jarriko dugu.

Oñatik ere askoz konexio hobekak izango ditu eskualdeko herriekin, eta San Prudentzian ibilbide luzeko lineak hartu ahal izango ditugu. Ordurako egokitu egingo dugu San Prudentzioko geltokia, koordinazio gune izateko.

SAN PRUDENTZIOko geltokia egokitu egingo du Aldundiak urte hasierarako



Geltoki bakarra jarriko dute norabide guztietako autobusetzat

Autobus zerbitzu berriak martxan jartzen direnerako San Prudentzioko geltokia berrantolatu eta egokitu egingo du diputazioak. Geltoki bakarra jarriko dute norabide guztietarako. Oñatitik Bergararako norabidean, biribilgunera iritsi baino lehen bidearen eskuinaldean egokituko dute geltoki berria; gaur egun Gurutze Gorrikoen aparkalekua dagoen gunean, gutxi gora behera.

Markesina handi bat jarriko dute bertan, behar bezala argizatuta, eta bertan hartu eta utzi beharko dituzte bidaiariak norabide guztietako autobusek. Modu horretan, bidaiariek ez dute errepidea gurutzatzen ibili beharko, eta beharrezkoa denean autobusek emango dute biribilgunean.

Webgune berria

www.lurraldebus.net webgunea berritu du Aldundiak. Lehengoa baino askoz arinagoa eta modernoagoa izateaz gain, planifikatzaile bat ere badu eta erabiltzaileak oso modu errazean aukeratu ahal izango du gehien komeni zaion ibilbidea. Ordutegiak deskargatzeko aukera ere eskaintzen du.



Geltokiak berritu

Herri arteko autobus zerbitzuak 1.800 geltoki ditu Gipuzkoan. Horien guztien egoeraren diagnostikoa egiten ari da Aldundia, ondoren inbertsio plana prestatu eta poliki poliki denak berritzen joateko.



Irudi berria eta bateratua

Foru Aldundiak herri arteko autobus zerbitzuaren irudi korporatiboa bateratzea erabaki du. Hala, aurrerantzean Lurraldebusen autobus guztiek irudi bera izango dute, urdin turkesa izango delarik kolore nagusia. Bestalde, logotipoan agertzen den hostoa berdea izango da, foru aldundiaren kolore korporatiboarekin bat eginez, eta iraunkortasun kontzeptuarekin bateragarri eginez. Autobusen irudi aldaketa hau poliki poliki egingo du diputazioak. Autobusen irudia ez ezik, linea edo zerbitzuen izendapena egiteko modua ere bateratu egin du Aldundiak.

HERRI ARTEKO AUTOBUS ZERBITZU BERRIA

14 autobus linea izango ditu Debagoienak

1 Eskoriatza - Aretxabaleta - Arrasate - San Prudentzio - Bergara - Antzuola - Zumarraga - Legazpi - Oñati - San Prudentzio - Arrasate - Aretxabaleta - Eskoriatza

-Orduerdiko maiztasuna izango duen **linea zirkularra**.
-Linea honi esker, orduerdi autobus izango dugu Oñatitik Arrasate aldera; goizeko 06:25etan lehena, eta gaueko 23:25etan azkena. Danera 33 zerbitzu egunean. Larunbatetan 23 zerbitzu egongo dira; igande eta jai egunetan 18.
-Linea honek aukera emango digu San Prudentzian geratu eta ibilbide luzeko (Donostiara, Gasteizera...) beste zerbitzu batzuk hartzeko.

2 Eskoriatza - Aretxabaleta - Arrasate - San Prudentzio - Oñati - Legazpi - Zumarraga - Bergara - San Prudentzio - Arrasate - Aretxabaleta - Eskoriatza

-Orduerdiko maiztasuna izango duen **linea zirkularra**.
-Linea honi esker, orduerdi autobus izango dugu Oñatitik Zumarraga aldera; goizeko 05:15etan lehena, eta gaueko 23:10ean azkena. Danera 33 zerbitzu egunean. Larunbatetan 23 zerbitzu egongo dira; igande eta jai egunetan 18.

3 Oñati - Bergara - Eibar

-Zerbitzu **BERRIA**. Goizeko 06:05ean hasita orduro zerbitzu zuzena egongo da Bergarara, eta bi ordutik behin Eibarreraino.
-San Prudentzian ibilbide luzeko beste linea batzuekin konbinatzeko aukera emango du.

4 Eibar - Bergara - (Oñati) - Arrasate - Gasteiz (AP-1etik)

-Maiztasun handiko linea izango da hau. Goizeko 06:00etan hasita, orduro 3 zerbitzu irtengo dira Eibarretik Gasteiz aldera. Zerbitzu gehienek AP-1 autobidea hartuko dute Arrasaten. Zerbitzu bat egongo da orduro, Aretxabaleta eta Eskoriatzatik pasatuko dena. Azken zerbitzua gaueko 23:00etan izango da.
-Goizeko 07:00etan Oñatitik ere irtengo da zerbitzu bat, Arrasaten AP-1 hartuko duena. Gainerakoan, oñatiarrok San Prudentzian hartu ahal izango ditugu linea honetako autobusak.
-Egunean zehar 5-6 zerbitzuk (egunaren arabera) Landako urtegitik egingo dute Gasteizeko joan-etorria, gaur egun baino bi zerbitzu gehiago.

5 Arrasate - San Prudentzio - Bergara - Elgoibar - (Zarautz) - Donostia

-Maiztasuna areagotzen da zerbitzu honetan. Egunean 18-20 zerbitzu egongo dira. Oñatiarrok San Prudentzian hartu ahal izango dugu; goizeko

LINEA ZIRKULARRAK
Eskoriatzatik bi linea zirkular irtengo dira orduerdi; bata Bergara aldera, bestea Oñati aldera.

LOTURAK SAN PRUDENTZION

San Prudentziora joateko aukera asko izango ditugu egunean zehar eta bertan ibilbide luzeko (Gasteiz, Eibar, Donostia...) zerbitzuak hartu ahal izango ditugu. San Prudentzioko **GELTOKIA** egokitu egingo du Aldundiak, **KOORDINAZIO** gunea izan dadin linea ezberdinentzat

UDAN DEBARA

Uztaila eta abuztuan hondartzara joateko Arrasate-Deba linea egongo da. San Prudentzian hartu ahal izango dugu.

JAIETAKO ZERBITZUAK
Aldundiak **80.000 km.-ko poltsa bat erreserbatu du**, tokian tokiko jai egunetan zerbitzu bereziak antolatzeko udalekin adostuta

06:25ean lehena, eta 20:50ean azkena (ostiraletan 22:40ean).

-Elgoibarrera goizeko 07:55etan iritsiko da, eskolako orduak betetzeko.
-Donostiarako bidean Zarautzen geratu ahal izango da zerbitzu guztietan, bidaiariren batek eskatzen bada. Donostiatik irteten diren autobusak Zarautzen geratuko dira bakarrik alde zurretik bertan txartelen bat saldu bada.

6 Arrasate - San Prudentzio - Bergara - Elgoibar - Deba

-Zerbitzu **BERRIA**. Uztailan eta abuztuan eskainiko da, hondartzara joan ahal izateko.
-Bi ordutik behin egongo da autobusa. Goizeko 08:45ean lehena, eta 20:45ean azkena. Debatik 21:45ean aterako da azkena.

7 Arrasate / Oñati - Bergara - Bilbo (Autopistatik)

-Zerbitzu **BERRIA**. Lotura zuzena eta azkarra Debagoiena eta Bilbo artean autobidetik.
-Egunean sei joan-etorri. Horietako bi (06:30 eta 13:00) Oñatitik irtengo dira. Arrasatetik 08:00, 10:30, 16:00 eta 18:30ena irtengo dira, eta oñatiarrok San Prudentzian hartu ahal izango ditugu. Igande eta jai egunetan zerbitzu bakarra irtengo da Oñatitik, 19:00etan.

8 Bergara / Oñati - Arrasate - Elorrio - Durango - Bilbo

-Orain arte bezala mantentzen da, bai ibilbidea eta baita ordutegia. Urte guztirako ordutegi bakarra izango du.

9 Arrasate - San Prudentzio - (Oñati) - Bergara - Eibar - Loiu

-Sei joan-etorri egingo ditu, gaur egun baino bat gehiago. Goizeko lehen zerbitzua (05:00etan) Oñatitik irtengo da, eta Loitutik azkena (23:15) ere Oñatiraino joango da.

10 Oñati - Arrasate (Gauekoa)

-Linea zirkularren zerbitzua osatuz, larunbat gauean eta jai egun bezperatan egongo dira lau zerbitzu: 01:00, 02:30, 04:55 eta 05:40.

BESTE LINEA BATZUK

Oñatiri zuzenean eragiten ez diotenak

11. Eibar - Bergara - Arrasate (Gauekoa)

12. Bilbo-Elorrio-Bergara-Ordizia-Donostia

13. Elgeta - Eibar

14. Bergara - Elgeta

San Martingo

BARATZE PARKEA

Azaroan zabalduko du Udalak San Martingo aisialdiko ortuen zozketan parte hartzeko izen-emate epea

Udalak San Martinen egokituko duen Baratza Parkearen erabilera-araudia onartu zuen behin betiko izaeraz urriaren 30eko osoko bilkuran. Orain, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da eta, ondoren, San Martinen aisialdiko ortu bat eskuratu nahi duten herritarrek izena emateko epea irekiko du Udalak. Datuak zehaztu gabe zeuden aldizkar hau ixteko orduan, baina hil honetan bertan zabalduko da izen-emate epea. Beraz, interesatuok adi egon datozen egunetan.

Araudiak dioenez, baratze publikoen zozketan parte hartu ahal izateko baldintzetako bat da Oñatin erroldatuta egotea deialdia egin aurreko sei hilabeteetan, gutxienez.

DENEK EMAN BEHAR DUTE IZENA

San Martinen aisialdiko ortu sail bat eskuratu nahi duten herritar guztiek eman behar dute izena;

Aisialdirako 30m²-ko 70 ortu egokituko ditu Udalak San Martinen. Baratzan onuradunek ikastaro labur bat egin eta elkarte bat eratu beharko dute.

baita Udalak ekainean egin zuen tanteo moduko deialdian izena eman zutenek ere. Hauetako gutun bana bidali die Udalak, izen-emate epe berria gogoraraziz.

Ekaineko deialdian 150 lagunek eman zuten izena; beraz, seguruenez zozketa egin beharko da, San Martingo parkean 70 bat ortu sail egokituko direlako, 30m² ingurukoak.

Izen-emate epea amaitu ostean, behin behineko zerranda argitaratuko du Udalak, eskatzaileek baldintzak betetzen ote dituzten egiaztatu ondoren, eta hamar eguneko epea zabalduko da, balizko erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Eskatzaileen behin betiko zerranda osatu ostean finkatuko du Udalak ortuen zozketa egiteko eguna. Abenduko lehen egunetan izango da, ziurrenera.

LANAK AURRERA

Bienbitartean aurrera darraite San Martingo Baratza Parkea egokitzeko lanek. Dagoeneko hormigoitu dituzte





Ortu sailen banaketa nolakoa izango den erakusten du goiko irudiak.

baratzen arteko distribuzio pasilloak, eta oinarrizko azpiegitura lanak ere eginda daude. Lurrak prestatzeko lanak ere aurrera doaz. Aldagelak, komunak eta tresneria gordetzeko biltegiak hartuko dituzten etxolen ingurua urbanizatzea falta da.

IAKSTAROA ETA ELKARTEA

Ortua eskuratzen duten herritarrek 70€-ko kuota ordaindu beharko dute urtero, eta beste 70€ hasieran, berme edo fidantza gisa.



Baratzerako tresneria gordetzeko biltegia, aldagelak eta komunak hartuko dituzten etxolen argazki muntaia.



BARATZA PARKE IREKIA

Ondoko planoan ikus daiteke nolako itxura izango duen San Martingo baratza parkeak. Erdi inguruan hiru etxeola egongo dira, aldagelak, komunak eta baratzeko tresneria (atxurrak, palak, karretillak...) gordetzeko biltegiarekin.

Etxolaren alde bi-etara egokituko dira ortuak (30m²-koak), 70 guztira. Tarteka, begiratoki moduko batzuk ere egongo dira, eskolako haurrek edo beste edozein herritarrek bisitatu ahal izateko. Izan ere, Udalaren asmoa da parke irekia izatea, edozeinek ikusi ahal izateko moduan.

Aldaketak Kalegoienako lurpeko aparkalekuan

Kalegoienako lurpeko parkineko funtzionamenduan hainbat aldaketa egin ditu Udalak, bertan dauden aparkaleku pribatuen segurtasuna bermatzeko asmoz. Oinezkoen zein ibilgailuen sartzeko moduan egingo dira aldaketak, era honetan:

1. Oinezkoen sarrera-irteerak.

Parkinetik irteteko automatikoki zabalzten den ate bat jarri da, baina parkin barrura sartzeko aparkalekuko txartelaren zenbakia tekleatu behar da.

2. Autoen sarrerara-irteerak.

Gaueko 00:00etatik goizeko 07:00ak arte parkineko atea itxita egongo da. Orduetegi horretan ezingo da autorik sartu (aparkaleku pribatuen jabeak izan ezik). Irteera arrunta izango da; hau da, barrera zabalitzean atea ere zabalduko da.



► Oinezkoek parkineko txartelaren zenbakia tekleatu beharko dute barrura sartu ahal izateko

► Gaueko 12etatik goizeko 7ak arte parkina itxita egongo da. Ezingo da autorik sartu, aparkaleku pribatua duten jabeena ez bada



**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50

ATEZ ATEKO INFORMAZIO ZERBITZUA: OHARRAK

Plastikozko gauza guztiak ez dira ONTZI ARINAK

Atez atekoaren informazio bulegoak gogorarazi nahi die herritarrei plastikozko gauza guztiak ez direla ontzi arinak eta, beraz, bereiztu egin behar dugula zer atera daitekeen eta zer ez ontzi arinen hondakin poltsan:

ONTZI ARINAK DIRA:

- **Plastikozko ontziak:** edarien botilak (ura, esnea, olioa...) detergenteenak, elikagaien ontziak (jogurtak...), bildukiak (goxokiak, galletak...), sareak (naranja...), plastikozko poltsak, poliestirenozko erretilu edo bandejak...
- **Metalezko ontziak:** kontserba latak, freskagarrienak, aluminiozko papera, kosmetika aerosoak...
- **Brik motako ontziak:** edarien tetra-brikak (esnea, zukua, tomatea...)

EZ DIRA ONTZI ARINAK:

- Ontziak ez diren plastikoak: CDak, bideo eta musika zintak, jostailuak, hortzetako eskuilak, biberioiak, gomak, bridak, zelo, gomazko eskularruak, pintzak, taperrak, pertsianak, tutueriak, papel plastifikatua (dorsalak, pankartak...), hondakinak gaika ateratzeko apurtutako ontziak edo hauen tapak...
- Ontziak ez diren metalak: jostailuak, kazolak eta zartaginak, etxeko tresna elektrikoak, bateriak edo tailerreko piezak...

ONTZI ARINAK PLASTIKOZKO EDOZEIN POLTSATAN ATERA DAITEZKE

Udalak zero zabor norabidearen aldeko apustua egiten du eta, beraz, ez du ontzi arinak ateratzeko poltsa horirik banatuko, hondakinen sorrera murrizteko filosofiari jarraituz. Beraz, ontzi arinak ateratzeko plastikozko beste edozein poltsa berrerabil daitekeela gogorarazten dute hondakinen informazio bulegotik.



EZ UTZI HONDAKINAK LURREAN

Azkenaldian hondakinak poltsetan eta lurrean agertu dira zenbait lekutan. Herritarrei gogorarazten zaie atal organikoa ateratzeko edukiontzi marroiak erabili behar direla eta, bestetik, lurrean ezin dela poltsa edo hondakinik utzi, Atez atekoaren ordenantzak ezartzen duen moduan.

Hondakin mota bakoitza ondo sailkatuta eta Mankomunitateak horretarako jarritako egun, ordu, modu eta lekuetan utzi behar ditugu. Horrela egin ezean, Mankomunitateak ez du hondakin horiek jasotzeko betebeharririk. Beraz, arduraz jokatzeko deia luzatzen die herritarrei Atez ateko informazio bulegoak.





LEHEN



ORAIN

Era guztietako **IGELTSERITZA** eta **OBRAK** egiten ditugu:

- > FATXADAK
- > TERRAZAK
- > ESTALKIAK
- > IMPERMEABILIZAZIO
- > ERREHABILITAZIOAK
- > IGOGAILUAK
- > BASERRIAK



Intenbide onenak isolamendu termikoko sistemetan (SAIE).



%30 diru-laguntzak

kuberakuber.es Tfno. 943 73.35.73 www.kuber.es


lanera bizikletan

Lantokirako joan-etorriak bizikletan egiteko ekimena jarri du abian Aldundiak Udala eta herriko enpreekin batera



Gipuzkoako Foru Aldundiak, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako udalekin batera, lanerako joan-etorriak oinez edo bizikletaz egitea sustatzeko programa pilotoa jarri dute martxan.

Aldundiak emandako datuen arabera, herri barruan autoz egiten ditugun bidaien %50 hiru kilometrotik beherakoak izaten dira eta, beraz, bizikletaz oso erraz egin daitezke, 20 bat minutu besterik ez direlako behar. Beraz, bizikleta aisialdirako bakarrik utzi barik, lantegira egiten ditugun joan-etorriak ere oinez edo bizikletaz egitera animatu nahi ditu herritarrak.



Horretarako gure inguruko herriak oso egokiak direla dio Aldundiak; lantegiak gune handitan elkaturik daudelako, bizilekuetatik gertu eta, gainera, bidegorri sareak lotzen dituelako lantokiak eta bizilekuak.

Lanera oinez edo bizikletan joateak onura ugari dituela gogorarazten du Aldundiak, bai osasunean, bai ingurumenean eta baita hirigunean ere. Langileari dagokionez, osasungarria izateaz gain, joan-etorriak azkarrago egiten dira, eta dirua aurrezten

laguntzen du. Enpresarentzat ere onura ugari ditu, besteak beste aparkaleku eta zirkulazio arazoak murrizten dituelako, eta ingurumenarekiko konpromisoa indartzen duelako.

Aldundiak eskualdeko enpresa gehienei luzatu die ekimen honetan parte hartzeko gonbitea, eta bat egiten dutenei, bizikletak aparkatzeko moduluak emango dizkie doan. Oñatiri dagokionez, oraingoz bost enpresek egin dute bat ekimenarekin.

Kanpainarekin bat egiten duten bizikleta-erabiltzaileentzat ere izango da saririk. Hala, www.lanerabizikletan.net atarian izena ematen dutenek txartel bat jasoko dute, eta horrekin laguntzak eskuratu ahal izahngo dituzte erosketa eta konponketak egiteko orduan, besteak beste, Caravanas Oñate, Lizarralde Kirolak eta Noomad-en.

Informazio gehiago www.lanerabizikletan.net webgunean

ABANTAILAK

Ekimen honekin bat egin eta izena ematen duten bizikleta-zaleek abantailak izango dituzte erosketak eta konponketak egiteko orduan

APARKALEKUAK

Ekimenean parte hartzen duten enpresei bizikletak aparkatzeko instalatutako moduluak doan emango dizkie Aldundiak

LANTEGIAK

Oñatiko 5 lantegik egin dute bat ekimenarekin: Chinchurreta, Ulma Packanging, Ulma PTC, Fagor Industrial eta Stadler

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



- Manikura eta Pedikurak
- Solarluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa

Sari Lorentzo 4 beheka | Tel. 943 78 05 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

» **elkarrizketa**

Hamar urteko ibilbidea egin du FIAREk, eta orain urrats kualitatibo inportantea eman du, Italiako Banca Popolare Etican integratuz. Zer dela eta?

Banca Popolare Etica orain dela 15 urte sortu zen Italian, eta orain arte haren agente bezala funtzionatu izan du Fiare Fundazioak.

Kontua da, Fiarerentzat oso zaila zela banku bezala eratzea, gaur egun, krisiaren ondorioz, asko gogortu direlako Espainiako Bankuak finantza entitateei esijitzen dizkien baldintzak, besteak beste gutxieneko kapital soziala.

Beraz, ikusita Italian badagoela Fiareren printzipio eta helburu berberak dituen banku etikoa, bertan integratzea erabaki du Fiarek. Irailean burutu zen integrazio prozesua eta hemendik aurrera, kreditu kooperatiba bezala funtzionatu ahal izango dugu. Italiako Banca Popolare-eren barruan egongo gara, baina jarduteko autonomia maila oso handia izango dugu.

Etorkizunera begira, Europa mailako kreditu kooperatiba bat eratzea da helburua.

Beraz, aurrerantzean beste edozein banketxek ematen dituen zerbitzuak eskainiko ditu Fiarek, ezta?

Bai, oinarritzko zerbitzu guztiak eskainiko ditu: kontu korranteak, gordailuak, diru eragiketak egiteko aukera, tranferentzia eta helbideratzeak... Urtarriletik aurrera txartela eskatzeko aukera ere egongo da.

Aldaketa Kualitatibo oso inportantea da. Orain arte, dena papelen bidez egiten zen, eta oso prozesu nekeza eta astuna zen. Orain berriz, bide elektronikoak erabiltzeko aukera egongo da, beste edozein banketxetan bezala.

Bulego fisikorik zabalduko du Fiarek, ala *online* bakarrik

FIARE-BANKU ETIKOAK beste banketxeen zerbitzu berberak eskainiko ditu aurrerantzean

Kontu korranteak eduki, helbideratzeak eta transferentziak egin, edota txartela erabiltzeko aukera eskainiko du Fiarek, baina bere printzipio eta helburuak mantenduz: gizarte -eragin positiboa duten proiektuak finantzatzea

Fiare-Banku Etikoaren proiektuak urrats kualitatibo garrantzitsua eman du berriki. Italiako Banca Popolare Etican integratu da eta, horri esker, Espainiako Bankuak finantza entitateen erregistroan onartu du. Beraz, aurrerantzean, beste edozein banketxek eskaintzen dituen zerbitzu berberak eskainiko ditu, baina bere printzipioak eta helburuak mantenduz betiere; hau da, gizarte-eragin positiboa duten proiektuak finantzatzea. Oñati eta Debagoieneko Fiare-Banku Etikoko ordezkari Juankar Olaeta eman diugu argibide gehiago.



Banka zerbitzuak ematea lagungarria izango da jende gehiago erakartzeko Fiare-Banku etikora

Juankar Olaeta, Oñati eta Debagoieneko FIAREko ordezkaria

funtzionatuko du?

Bilbon zabaldu berri du aurrez aurreko zerbitzua emateko lehen bulegoa, baina Fiarek ez du zabalzte politikara erroturik jarraituko.

Fiarek ez dauka presarik. Garbi izan behar dugu, Fiareren helburua ez dela banku bat izatea, bitartekoa

baizik; hau da, helburua da banku zerbitzu horien bitartez gizarte-eraldaketa prozesuak sustatzea. Eta horretarako oso inportantea da gizarte-sare trinkoak sortzea, Fiarerekin lan egiten dutenak (bazkideak, bezeroak, mailegu jasotzaileak...) ezagunak izatea, eta oso

ondo ulertzea zein diren proiektu honen printzipioak eta helburuak.

Beraz, zerbitzuak Internet bidez emango dira, nagusiki, eta, bestelako argibideak eta laguntza zerbitzua tokian tokiko kolaboratzaile taldeen bidez ematea hobesten da.

Banka izatea ez da helburua, bitartekoa baizik; banku zerbitzuen bidez gizarte eragin positiboa duten proiektuak bultzatzea da helburua

Fiarek ohiko banketxeen zerbitzu berberak eskainiko dituela esan dugu, baina ez da beste banketxe bat gehiago izango beste barik.

Ez, noski. Fiarek bere izaera etikoari eutsiko dio tinko, gizarte-eragin positiboa duten proiektuak finantziaz.

Gaur egun 32 milioi euroko gordailuak ditu Fiarek estatu osoan, eta horietatik 27 milioi erabiltzen ari dira proiektu ezberdinak finantziazteko. Gainera, 15 milioi eurori dagozkion proiektuak amaituta daude, eta maileguak itzulita.

Maileguen %80a, gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonak gizarteratu eta lan munduan integratzea helburu duten proiektuetara bideratzen dira. Baina beste hiru arlotako proiektuak ere izan daitezke: ipar eta hegoaldeko herrialdeen arteko lankidetzak; elikadura burujabetza (lehen sektorea) eta ekologia (energia berriztagarriak...); eta balore etikoak transmititzeko kultura eta hezkuntza proiektuak.

Mailegua jaso ahal izateko bi filtro edo galbahe pasa behar ditu proiektuak: balorazio etiko-soziala eta bideragarritasun ekonomikoa.

Oñatin ere ba omen duzue lankidetzak proiektuen bat esku artean.

Bai, Caritasetik sortutako Elkarzabal elkartearekin hitz egiten ari gara. Gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonen alde lanean eriten elkarrekin da, eta bat dator Fiareren filosofiarekin. Beraz, uste dut badagoela

► Zer da FIARE-Banku Etikoa?

Gizarte justuago eta iraunkorrago baten alde lan egiten duen kreditu kooperatiba bat da Fiare (*Fundación Inversión y Ahorro Responsable*). Bilbon sortu zen 2003an, gizarte erakunde ezberdinen ekimenez. Gaur egun estatu osoa zabaldua dago.

► Helburuak

Diruaren balio soziala berreskuratu nahi du Fiarek. Gizarte eraldatzen laguntzeko tresna izan nahi du eta, hala, eragin sozial positiboa duten proiektuak finantziazteko bideratzen ditu bezeroen aurrezkiak.

► Oinarriak

Demokrazia, gardentasuna eta partehartzea dira Fiareren jardunaren printzipio edo oinarri nagusiak. Kreditu kooperatiba bat da eta biltzar bidez funtzionatzen du, bazkide bakoitzak boto bat duelarik (bakoitzak duen kapitalari begiratu barik). Beraz, bazkideek dute kontrola. Gardentasuna da ezinbesteko beste eskakizun bat Fiareren jardunean; hau da, sistematikoki eta garbi azaltzen zaie bazkideei zenbat diru eta zein proiektura bideratzen den, eta emaitzak.

► Datuak

Gaur egun 5.000 inguru bazkide ditu Fiarek estatu osoan. Gipuzkoan 468, horietako 23 Oñatin. Fiarek 32 milioi euroko gordailuak kudeatzen ditu Espainian, eta horietatik 27 milioi erabiltzen ari dira proiektu ezberdinak finantziazteko.

Informazio gehiago: www.fiare.org / www.fiarepaisvasco.wordpress.com



Bilbon zabaldu berri du bere lehen bulegoa Fiarek

Kontu korrontea eduki, transferentziak eta helbideratzeak egin, edota txartela erabiltzeko aukera eskainiko du Fiarek

Oñatin gizarte bazterketari aurre egiteko sortu den Elkarzabal taldearen proiektu finantziazteko aukerak aztertzen ari gara

Elkarzabalek dituen proiektu batzuk (oilategia, labanderia zerbitzua...) finantziazteko.

Gainera, Oñatiko Caritas bera ere Fiareko bazkide da, eta lehen esan dudan moduan, guretzat oso

inportantea da gizarte-sare sendoak osatzea.

Duela urte eta erdi aurkeztu zenuten Fiare proiektua Oñatin. Nolako harrera izan du?

Duela urtebete bi bazkide bakarrik geunden Oñatin, eta urtebeteko ibilbidearen ondoren, Debagoiena da Gipuzkoan gehien hazi den eskualdea; eta Debagoiena barruan Oñati; gaur egun Debagoienan 48 bazkide ditu Fiarek, eta horietatik 23 Oñatin daude.

Beraz, pozik gaude, baina, hala ere, hazkunderako aukera handiak ditugula uste dugu. Eta pentsatzen dut Fiareren funtzionamenduan ematen diren aldaketak hauek ere lagunduko dutela jende gehiago erakartzeko.

Nola kolaboratu daiteke FIAREekin?

Modu ezberdinak daude. Bazkide izateko 300€-ko ekarpena egin behar da. Diru hori edozein momentutan berreskura daiteke.

Bestela, bazkide izan barik,

bezero izan zaitezke, zuk nahi duzun diru-gordailua zabalduz. Bestalde, dirurik jarri gabe ere, kolaboratzaile izan zaitezke Fiareren herriko lantaldean lagunduz.

Aurrezkiek 100 mila euro arteko bermea dute, beste edozein banketxetan bezala.

Nora jo dezake interesa duenak? Oñatin ba al duzue informazio zerbitzurik?

Fiareko ordezkariok ETEO zahareko 'Eltzia' proiektuan parte hartu dugu, eta hitzartuta daukagu txoko bat izango dugula bertan, informazio zerbitzua eman ahal izateko. Bestalde, Caritasen lokalean ere badugu zerbitzua emateko aukera. Kontua da jendea falta zaigula.

Beraz, gure erronka da orain Oñatiko bazkideak, eta interesa duen oro, elkartu, eta denon artean lantaldetxo bat osatu informazio zerbitzua eskaini eta proiektua dinamizatzeko. Bienbitartean, nahi duenak onatikofiaretaldea@gmail.com helbidean aurkituko gaitu. ■



Zergatik SARE?

Benetako bakea eta bizikidetzaz lortu nahi badugu, ezinbestekoa da pertsona guztien eskubideak errespetatzea, eta gatazkak eragindako ondorioak konpontzea. Horregatik, uste dugu ordua dela euskal presoen eskubideak errespetatuak izan daitezen behin betiko. Azken hiru urteotan gauzak asko aldatu dira Euskal Herrian, eta ez da onargarria presoen aurkako zigor erantsiak aplikatzen jarraitzea; ez da bidezkoa sakabanaketa politikak indarrean jarraitzea.

Eta uste dugu herritarren garaia dela; hau da, bakea eta bizikidetzarekin amesten baldin badugu, lagundu egin behar dugu hori lortzen. Geure aletxo jarri behar dugu, alderdi politikoei begira egon barik. Horregatik, sare zabala, aktiboa eta eraginkorra osatu nahi dugu, sektore eta pentsamolde ezberdinetako herritarrek batuz aldarrikapen hauen inguruan. Sujeto pasibo izateari utzi behar diogu eta ekinbidea hartu.

GIZA ESKUBIDEAK aldarri

Sakabanaketa politika eta bakartze egoerekin amaitzea, gaitz larriak dituzten presoek askatasuna lortzea, 70 urtetik gorako presoak eta zigorraren hiru laurdenak edo bi herenak beteta dutenak etxera ekartzea, eta biziarteko kartzela zigorra ahalbidetzen duen legedia indargabetzea eskatzen dugu. Hau da, giza eskubideak eta, konkretuki, presoek eskubideak errespetatu daitezela eskatzen dugu. Helburu zehatzak eta argiak dira. Uste dugu adostasun maila zabala duten helburuak direla eta oñatiarren gehiengoak bat egiten duela aldarrikapen horiekin. Beraz, helburu horiekin bat egiten duten herritarrek aktibatzea da gure erronka orain.

Azken batean legezko eskaerak dira, Estatuko legediak berak eta nazioarteko erakundeek ere jasotzen dituztenak. Gainera, herri honek behar du eta nahi du arazo horri konponbidea ematea bakegintzan eta bizikidetzan aurrera egiteko. Beraz, uste dugu badela nahikoa arrazoi herritarrek aktibatzeko.



SARE

Euskal presoek giza eskubideak aldarrikatu eta, lehentasun gisa, sakabanaketa politikaren amaiera esijitzeko sortu den herritar sare da SARE. Alderdi politikoen gaineratik, sentsibilitate ezberdineko herritarrek batu nahi dituzte SAREK, helburu amankomun baten inguruan: presoek aplikatzen zaizkien zigor erantsiak amaitzea, bakea eta elkarbizitza prozesuan aurrera egiteko oinarri bezala. Ekainaren 15ean aurkeztu zen SARE ekimena Donostian, eta poliki poliki Euskal Herri osora zabaltzen ari da. Oñatin ere abian da SARE, irailaren 6an egin ziren herritarren arteko topaketen ondotik. Bertako kide Juanje Anduaga, Xabier Arregi eta Elias Zumalderekin hitz egin dugu taldearen izaera eta helburuez.



Sare ZABALA eta ANITZA

Sentsibilitate guztietako herritarrek dute lekua SAREn.

Alderdi politiko eta ideologiaren gaineratik sortutako herritar sare da. SARE ez dator inor ordezkatzera.

Ez goaz inoren edo ezeren kontra egitera.

Askatasun osoz presoek giza eskubideen alde egin nahi dugu. SAREk pertsona norbanakoei eman nahi die protagonismoa, errespetuz jokatzeko eta pertsona guztien iritzia aintzat hartuz. Alderdi politikoen dinamikatik irten nahi dugu, 'etiketak' alde batera utzi eta SAREekin bat egiten duten guztiak eroso senti daitezen.

“ Herritarren garaia dela uste dugu. Bakea eta bizikidetzaz amesten baditugu, geure alea jarri behar dugu presoek eskubideak errespetatu daitezen

RE



EUSKAL PRESOEN GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO HERRITAR SAREA



HARREMANETARAKO

Irailaren 6an egin zen Oñatiko SARE abian jartzeko herritarren arteko topaketa. 50 bat lagun batu ziren, eta gogoeta interesgarria egin zuten era honetako ekimen batek izan behar duen izaera eta egitekoen inguruan. Bertan jaso ziren ideia, iritzi eta ekarpenekin egindako txostena herritar guztien eskura jarri du SAREk. Dokumentua eskuratu edo Oñatiko Sare-kideekin harremanetan jarri nahi izanez gero, sareonati@gmail.com helbidera idatzi. Irailaren 6ko topaketari amaiera emateko bertan bildutakoek osatu zuten bertsoa duzue ondoan.



BERTSOA

Giza eskubideei begira jarri behar dugu brujula nahiz oztopoak bidean izan ez dugu etsiko sekula elkar saretzearen aukeran sinetsi behar dugula gure ametsa posible dela gure indarra mardula ta egoera bidegabe hau irauli dezakegula

Doinua: mutil koxkor bat



Egiteko MOLDE BERRIAK

Azken urteotan gauza asko aldatu dira Euskal Herrian. Garai berriak bizi ditugu eta, beraz, aldarrikapenak egiteko ere molde berriak sustatu nahi ditu SAREk. Orain arte, beharbada, hainbat herritarrek ez du bere lekua aurkitu presoek eskubideen aldeko aldarrikapenetan; beraz, SAREren planteamendua da herritarrei ematea protagonismoa eta, bakoitzak aurki dezala bere lekua, bere erosotasunetik eta egiteko gaitasunetik, garbi izanik, egiten den guztia, txikia izanagatik, oso baliagarria dela. Alde horretatik, ekimen berritzailea, positiboa eta eraikitzailea izan nahi du SAREk, iraganeko aurreiritzi barik.

Ideien AZOKA

Datozen asteetara begira hainbat ekimen antolatuko ditu Oñatiko SAREk. Hala, azaroaren 22an, Gaztelekuan, Ideien Azoka bat antolatuko dute, herritarrak aktibatu eta ekintza ezberdinei bide emateko. Bestalde, herritar sarea hedatu eta trinkotzeko helburuarekin, triptiko bat banatuko dute etxe guztietara, SARE zer den azaldu eta sarekide egiteko aukerak azalduz. Gero, urtarrilaren 10ean, euskal presoek eskubideen aldeko manifestazio erraldoia antolatzeke asmoa du.

Dispertsioaren LIBURUA

Euskal Herri mailako SARE ekimenak sakabanaketarekin ematen ari den eskubide urraketa mundu osoari erakusteko asmoa du. Helburu horrekin, *Dispertsioaren liburuaren* 500.000 ale banatuko ditu mundu zabalean apirilera bitartean, dispertsioa zertan datzan azalduz, ikuspegi juridikotik, sozialetik eta humanotik.

“ Uste dugu oñatiar gehiengoa dagoela sakabanaketaren aurka eta presoek eskubideen alde. Herritarrak aktibatzea da orain SAREren erronka.



DEBAGOIENeko GASTRONOMIA JARDUNALDIak ABENDUAREN 14RA ARTE

Onddoak, bakailoa eta sagarrak dira Debagoieneko Mankomunitateak eskualdeko zazpi jatetxerekin elkarlanean antolatu dituen 18. Jardunaldi Gastronomikoetako osagai nagusiak. Abenduaren 14a bitartean degustazio menu bereziak dastatzeko aukera egongo da Oñatiko **Goiko Benta**, **Torre Zumeltzegi** eta **Etxe Aundi**, Arrasateko **Santa Ana** eta **Hilarion**, Bergarako **Lasa** eta Elgetako **Maialde** jatetxeetan. Ikusi menuak eta prezioak www.turismodebagoiena.com helbidean.

TAILERRAK ETA BISITAK

Menu bereziak dastatzeaz gain, sukaldaritzaren tailer ezberdinak ere antolatuko dituzte: 'Zizka-mizkak' (azaroak 11, Etxe Aundin, 18:00); 'Moxal okelarekin prestatutako errezetak' (azaroak 18, Hilarion, 18:00); 'Gabonetako postreak' (azaroak 25, Arrasateko Hiper Eroskin, Lasa eta Goiko Bentako sukaldariek); 'Garaiko ehiza' (abenduak 10, Oñalora dorretxean). Tailer hauetan parte hartzeko izena eman behar da [943796463](tel:943796463)/turismo@debagoiena.net.

Horiez gain, bisita gidatuak egiteko aukera ere badago produktu ekologikoak ekoizten dituzten baserrietara: Antzuolako Lapatza, Aretxabaletako Mendibitzu eta Oñatiko Gomiztegi. Informazio osoa: www.turismodebagoiena.com

Energia Portatil erosteko eskaintza egin du Sherpa Capital fondoak

Valentzian egoitza duen Sherpa Capital arrisku kapital fondoak Oñatiko Energia Portatil lantegia erosteko eskaintza egin du. Oñatiko planta ez ezik, Gasteizko komertzializazio eta zerbitzu nagusien zati bat ere bere egitea aurreikusten du inbertsio fondo espainiarraren eskaintzak.

Konkretuki, 130 lanposturen subrogazioa jasotzen du Sherpa-ren erosketaren proposamenak; Oñatiko plantilla osoak (65 bat langile) lanean jarraituko luke, eta Gasteizko egoitza nagusian pertsonal hautaketa egingo litzateke. Valentziako inbertsio fondoak prest dago gaur egungo kontratuen ezaugarriak mantentzeko, antzintasuna eta beste xehetasun batzuk errespetatuz, baina soldata handienak mugatuz.

Administrari konkurtsalako ontzat eman du eskaintza, eta epailearen ebazpenaren zain daude orain

Martxoaz geroztik Cegasa taldean abian den prozesu konkurtsala zuzentzen duten administrariak ontzat eman dute Sherpa Capital fondoaren eskaintza, eta, orain, Gasteizko merkataritza arloko epaitegiak ebazten duenaren zain daude.

Cegasako langileen ordezkariek urriaren 15ean izan zuten Sherpa Capital fondoaren eskaintzaren berri, baina xehetasun gehiagoren zain daude behar bezalako balorazioa egin ahal izateko. Oñatiko lantegian itxaropentsu jaso dute berria, Sherparen eskaintzak Energia Portatileko lantalde osoarekin aurrera egitea aurreikusten baitu, baina balorazioa ezin da erabat positiboa izan, Cegasan gaur egun dauden ia 400 langileetatik 130ek bakarrik jarraituko luketelako, operazio hau gauzatuko balitz, eta badirudi hala izango dela, administrari konkurtsalak jaso duen eskaintza bakarra baita.

Sherpa Capital Gestion fondoak 2010ean sortu zen 30 milioi euroko kapitalarekin, eta egoera zailean dauden enpresen erreskatean espezializatuta dago, 10 eta 200 milioi arteko fakturazioa duten enpresetan inbertitzen duelarik.

NEGUKO ORDUTEGIA ARANTZAZUKO AUTOBUSEAN

Azaroaren 9an neguko ordutegia sartuko da indarrean Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzuan, Oñatin goizeko 7:30etan abiatuko da lehen autobusa, eta hortik aurrera orduko 13:30ak arte. Eguerdiko etenaldiaren ondoren, beste bi zerbitzu egongo dira arratsaldean, 16:30etan eta 17:30etan. Goizeko 10:30etako zerbitzua Arrikutzen egingo du indarrean ordutegi hau.



geldialdia.

Arantzazutik behera goizeko 8:00etan abiatuko da lehen autobusa, eta hortik aurrera orduko 14:00ak arte. Eguerdiko partekoak 12:15ak eta 13:15etan izango dira. Azken hau Arrikutzera ere joango da. Arratsaldean beste bi zerbitzu egongo dira, 17:15 eta 18:00etan.

Martxoaren 29ra arte egongo da indarrean ordutegi hau.

Calahorrara bidaiara eta gaztainerre jana Pake Leku


Hilaren 19an Calahorrara (Errioxa) egingo dute txangoa Pake Leku elkarteak. Azaroaren 5a zen izena emateko azken eguna, baina oraindik badago lekua. Hilaren 14a da ordaintzeko azken eguna.

Bestalde, azaroaren 14an Gaztain-erre jana egingo dute Pake Leku elkartearen bertan.

Argitxoak Agerreko Loperen arimari

Oraintxe dala urtebete, Agerreko Loperen gaiñeko lana antzestu geben "Lope Agirre" kalien zihar Antixeneko parkeraiño: <https://vimeo.com/77995376> (Anjel Lera).

Aurten, noraezian ibilli leikien Loperen arimari argitxo batzuk jarri gura izan xaugu, bera garbittu eta zatitutu eueneko urteurrenien. "Lope Agirre" kaleburuan eta kalebarrenien, eta Antixeneko parkian ifiñi dittugu argitxuok.



ARTASO



EMAKUMEON KONTRAKO INDARKERIA GELDITU!

 Oñatiko Sare Feminista

Emakumeon aurkako indarkeria pairatzen jarraitzen dugulako gaude behartuta egun hau "ospatzera". Data hau baliatuz irteten gara sekula baino jende gehiago kaleetara eta gaurko egunez egin ohi dituzte aldarrikapenak instituzio publiko zein pribatuek. Argitaratzen dira urte osoan isilarazitako datu bortitzenak: 47 emakume erailak, milaka bortxaketa kasu atzemanda... Estatu mailan, Euskal Herrian, gure herrian, gure etxean, txosna-gunean. Badirudi jada ohituegiak gauden biolentzia hau guztia, gaurkoz bakarrik bada ere, jendartearen begi bistan dagoela.

Mugimendu Feministatik ohartarazi nahi zaituztegu ordea emakumeon kontrako indarkeria posible egiten duen mekanismoa ulertu arte ez dugula matxismoarekin amaituko; pertsona guztiak arautzen gaituen genero-sistemaren logika gutxietsiak garenok, herritarren gehiengoak ikusi, usaindu eta nabaritzen ez duen indarkeria sotilago bati esker meneratuak eta zapalduak jarraitzen dugu. Izan ere, emakume edo gizon izan, horren arabera ezberdintasun sozialetan oinarritutako harremanak izaten jarraitzen dugu; hau da, binarismo sexualean eta hetero-arauan oinarritutako harreman pertsonalak dira nagusi gure bizitzan.

Pertsonala politikoa da ordea eta kasualitateak ez dira existitzen: lan eta arduraren banaketan, lagun taldeak osatzerakoan, ikastetxetan, kiroletan aritzerakoan, epaitegietan, janzterakoan edota kartzelatan. Emakume edo gizon izateak ezberdintzen gaitu. Ezberdintasun hauek ez dira ordea zerbait pertsonala, individuala: genero-sistemak gizartean bi kolektibo bereizten ditu atxikitzen zaizkigun jarrera, funtzio eta izaeraren ondorioz, beraz generoa sorkutza politiko-kulturala eta gatazka soziala da: ezartzen duenaren azpian ideologia politiko, ekonomiko eta sozial oso bat dago. Horregatik diogu emakumeon kontrako biolentzia egiturazkoa dela, gurean, logika matxista, kapitalista baztertzailerak eskutik



Emakumeon kontrako indarkeria posible egiten duen mekanismoa ulertu arte ez dugu matxismoarekin amaituko

emanda doazelako.

Egoera honen aurrean Instituzioek zeregin handia dute prebentzioa eta kontzientziatzea baino haratago doazen aldaketa integralak bultzatzen; hezkuntza sistema parekide bat oinarritzokoa da belaunaldi berrietan genero indarkeriak tokirik izan ez dezan.

Kalitatezko sexu-hezkuntza bat ere esentziala da harreman sexu-afektibo osasuntsuak izateko. Izan ere, Estatuak azken ikerketek zera diote: mutiletan gero eta agresiboagoa eta neskekiko posesiboagoa izan, orduan eta "guay"ago bilakatzen direla. Eta ezin dugu ahaztu, gutxiago garaiotan, aukera berdintasuna edota emakumeok gure gorputzen jabe izateko eskubidea ere bermatu behar ditugula.

Feminismoaz urteko egun guztietan borrokatzen dugu, nola edo hala, guztion onurarako den harreman eredu berriak sortzen: feminitate eta maskulinitate hegemonikoak zalantzan jartzen, estereotipoekin amaitzen, rol banaketa hertsia gaitzesten. Funtsean, emakume zein gizon, pertsona subjektu autonomoak bilakatzen. Borroka amaigabe honen adibidea dugu Oñatiko Sare Feminista.

Generoa pertsonon zapalkuntza iturri izango ez den jendarte askeago baten alde, guztiak animatzen zaituztegu Sare Feministaren parte izan eta sentitzera. Guztiok eman behar baitugu zerbait etxeko andreak guztia eman ez dezaten!!

Erasorik ez erantzunik gabe!!

» EGITARUA

● **AZAROAK 25, ASTEARTEA, 18:00**

Elkarretaratzea herriko plazan.

● **AZAROAK 27, OSTEGUNA, 20:00**

Zine-Kluba: 'La segunda mujer'

Ayse izeneko emakume gazte turkiar baten istorioa. Hasan izeneko gazte batekin ezkonduko da, ustez behintzat, baina Vienako bere bizileku berrira iristean, Hasan-en aitaren bigarren emaztea bilakatuko da



EGUR-LAN
AROSZTEGIA
S.L. (I.M.A. S.L.)
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL./ FAXA: 943 78 14 59 | linobarsali@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
sua berrin 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

NOLA IBILI ?

bidegorria amaitzean

- ✓ Joan eskuineko erreitik eta banakako ilaran. Eutsi zure ibilbideari. Ez ibili trafiko artean sigi-sagaka.
- ✓ Ibilgailu gehienek ez dituzte arauzko distantziak errespetatzen txirindulariak aurreratzean. Beraz, bidea estua baldin bada, ibili bidearen erdi-erdetik, ibilgailu gehienek ez
- ✓ Ez aldatu bidea edo noranzkoa alde aurretik begiratu gabe. Adierazi nabarmenki norabide aldaketak behin eta berriz.
- ✓ Ez ibili aparkatuta edo geldi dauden ibilgailuen ondotik, bat-batean irekitzen den ate baten kontra joan zaitezke. Saiatu auto-gidarien begibistan egoten. Saihestu angelu hilak.
- ✓ Errespetatu trafiko seinaleak. Semaforo bat gorrian igaro edo stop bati jaramon ez egitea oso garesti aterako zaizu.



< Munduan zehar >

Turistak bizikleta gainean

Alemania eta Austrian, eguzki izpien presentzia oso handia ez den arren, oso ohikoa izaten da familiak beraien bizikletak atara eta erreka inguruetan pasieran ikustea. Turismoa bizikletan egiteko eredua laurogehiko hamarkadan hasi zen eta esan daiteke, pixkanaka-pixkanaka, giro hobea egiten duen lurraldetara hedatzen hasi dela.

Oraindik ezin esan daiteke industria bat denik, baina bizikletan eginiko turismoak Europako Parlamentuak 2012an eginiko ikerketa batek dioenez, 1.620 milio euro sortzen ditu urtean.



Turistak bizikletan, Ebro ibaiaren inguruan.

Sektoreko erreferentzia, Danubioko ibilbideak izaten jarraitzen du. Europako ibilbiderik zaharrena izateaz gain, ezaguna ere bada zikloturistentzat.

Danubio ibaiak dituen 2.857 kilometro luzeetan zehar, hamar herrialde ezberdin zeharkatzen ditu. Ibilbideak tarte zaharrenaren izena hartzen du; Austriako tartearen izena, alegia.

Zati honek 463 kilometro ditu eta 1994. urtean adibidez, 80.000 pertsona pasa ziren bertatik. Ibilbidean dauden hotelek jasotako estatistiken arabera, azken 10 urtetan %27 hazi da turista hauen kopurua.

ALTUBE ZERBITZUAK

Portu Kalea 5
20560 Oñati
Gipuzkoa

MAPFRE

Tel.: 943 78 12 65
943 78 33 97
Faxa: 943 78 07 65

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Berria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inikota@telefonos.es



Izena: **Rosa Igartua**
Ogibidea: **Langilea**

Zer da bizikleta zuretzat?

Garraio bide bat da. Kirol pittin bat egiteko ere erabiltzen dut, baina batez ere lanera joateko.

Zergatik eta zertarako erabiltzen duzu?

Gaztetan asko ibiltzen nintzen bizikletan, eta ikusten nuenean jendea bizikletan lanera joaten inbidia ematen zidan, baina nik Zubillagaraino joan behar izaten dut eta beldurra ematen zidan. Baina bidegorria zabaldu zutenetik egunero joaten naiz, euri asko ez bada behintzat. Eta oso gustora.

Ze abantaila ikusten dizkiozu?

Lasaitasuna. Lanetik nekatuta edo haserre irtetzen naizenean burua despejatzeko laguntzen dit eta, bide batez, kirola egiten dut.

Zer egingo zenuke bizikletaren erabilera sustatzeko?

Faltan botatzen dut bizikletentzako aparkaleku gehiago. Oلابarrietaraino bidegorria egitea ondo iruditzen zait, baina herri barruko bidegorriak ez ditut hain beharrezkoak ikusten. Denok soseguz ibilita nahikoa litzateke.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Baikor. Bizikleta elektrikoek ere bultzada handia emango diote.

Txirrinka eta Natur Eskola elkarlanean

Epeleko araztegiara bisita gidatua

Bizikleta ibilaldi gidatua izan zen pasa den urriaren 11ean Epeleko araztegiara. Goizeko 10etan herriko plazan elkartu eta poliki poliki, geldialdiak eginaz, inguruaz gozatuaz, Natur eskolako gidarien azalpenak entzun eta Oñati eta Arrasate bitarteko natur aniztasuna ezagutzeko aukera izan zuten bertaratu zirenak.

Ondoren araztegiaren funtzionamendua ezagutu ahal izan zuten bertako langile batek gidatuta, eta azkenik Oñatira buelta egin zuten bidegorritik denok elkarrekin.

Animatu egingo diren hurrengo ibilaldietara!



Epeleko irteeran parte hartu zuen taldea, adi-adi azalpenak entzuten.

Txirrinka

Merkatua >

Funnel

EJECT | WEAR



Funnell motxila eta jaka baten arteko konbinazioa da. Bi sokei tira eginda, parakaidasak zabaltzen diren bezala, era simple eta erraz baten ateratzen da jaka motxilatik, zu eta motxila barruko elementuak garbi eta busti gabe mantenduz. Proiektu hau merkatura ateratzeko bidean da eta interesaturik egonez gero aportazioak ere egin daitezke.

Informazio gehiago:

www.kickstarter.com/projects/884605357/funnell-eject-wear-new-design

caravanas  oñate



• GALBARAGINTZA - CALDERERIA
Oñateko zubaldea, 25 • Tel.: 943 71 63 60

www.caravanasoonate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oñateko zubaldea, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kalea, 32 (Arakasketan)

PATIN ESKOLA

jarri du martxan Tatarraz Patinatzaile taldeak

Orain arte uda sasoiarekin lotu izan dugun aktibitatea da patinajea. Aurrerantzean baina, urte osoan zehar praktikatu ahal izango dugu, TATARRAZ taldeak martxan jarri duen Patin Eskolari esker. Aurtengo udaberrian eratu zen Tatarraz Patinatzaile Taldea, gero eta indar handiagoa hartzen ari den kirol honen zaleak batzeko asmoz. Egoitz Atxaga patin eskolako arduradunarekin izan gara.



Helduen hiru taldeak beteta daude. Gabonen ostan hasiko gara talde berriekin



Uda atarian sortu zenuten Tatarraz Patinatzaile Taldea. Zein helbururekin? Iazko Uda Kanpainan patinaje ikastaroa egin genuenok harremana mantendu dugu urtean zehar, eta tarteka elkartu izan gara bidegorrian patinatzeko edo hockey-an jolasteko. Eta ikusi genuen zerbait gehiago egin behar genuela, Oñatin gero eta jende gehiago dabilelako patinetan. Hala, Oñatiko I. Patin Eguna antolatzea erabaki genuen, eta behin dinamika horretan sartuta, talde bezala eratzea erabaki genuen, geure artean koordinatu eta urtean zehar hainbat ekintza antolatzeko asmoz.

Uztailaren Sean ospatu zenuten Oñatiko I. Patin Eguna. Zer moduz?

Oso ondo. Ehun lagun pasatxok parte hartu zuten irteeran eta ondorengo *slalom* eta patin-dantza erakustaldia ikustera ere jende asko batu zen. Espero baino askoz hobe joan zen.

Orain Patin Eskola jarri duzue martxan. Zergatik?

Behar edo eskari bati erantzuteko. Udako ikastaroetan izugarriko arrakasta izaten du patinajeak haurren artean, baina gero, ikasturtean zehar ez daukate aukerarik, eta hainbat gurasok eskatu digute zerbait antolatzeko. Helduen artean ere jende asko dago patinatzen ikasi edo hobetu nahi duena.

Adin eta maila ezberineko taldeak dituzue, ezta?

Bai. Helduetan hiru maila ditugu: Hastapena, Hobekuntza I eta Hobekuntza II. Bi hilabeteko ikastaroak izango dira eta, dagoeneko, hirurak beteta daude. Gabonen ostan hasiko gara talde berriekin.

Haurren eta gaztetxoaren artean (5-15 urte) bi talde ditugu oraingoz. Berandu samar egin genuen deialdia.



Egoitz Atxaga, patin eskolako arduraduna

Ikastaro hauek maitzera arte iraungo dute, eta ikasturtean zehar apuntatzeko aukera ere egongo da. Larrañako pilotalekuan izaten dira saioak astelehen arratsaldetan. Informazio gehiago 697508367 edo eatxaga@gmail.com

Saio partikularrak eta Hockey-an aritzeko aukera ere eskaintzen dizue.

Bai, ahalik eta aukera gehien ematea da helburua. Jende asko dago ordutegi aldetik mugatuta egoten dena. Eta, beharbada, egongo da jendea, teknika espezifiko bat landu nahi duena. Horiengan pentsatuta daude saio partikularrak. Aurrez deitu eta ordutegia adostea besterik ez da; adibidez larunbat goizetan egin genezake ordubete edo bi orduko saioak, pertsona bat, bi edo taldetxo batentzat.

Hockey taldea oraingoz ez da irten. Gaztetxo asko daude Oñatin patinatzen oso maila ona lortu dutenak, eta horiei irteera bat ematea da helburua. Hiruzpalau lagun daude izena emanda, baina taldea osatzeko nahikoa ez. Beharbada aurrerago osatuko da taldea.

HERRIKO PATINZALEAK ELKARTU ETA ELKARREKIN PATINAJEAZ DISFRUTATZEA DA TATARRAZ TALDEAREN HELBURUA

ASTEAN BEHIN HERRIAN IRTEERAREN BAT NTOLATZEKO ASMOA DUGU ETA, TARTEKA, BESTE HERRIETAKO BIDEGORRIETARA JOATEKO

Nori gomendatuko zenioke patinatzen hastea? Patinajeak daukan gauza onenetako bat da, edozein adinetan praktikatu daitekeela. Ez da agresiboa artikulazioentzat, korrika egitea izan daitekeen moduan. Nik 60 urteko jendeari eman izan dizkiot klaseak, eta oso ondo dabilta. Koordinazioa lantzen da, baita erresistentzia eta giharrak ere... Oso aktibitate egokia da aisialdi eran disfrutatzeke, eta baita ere kirol edo errendimendu mailan lantzeko ere. **Gainera, jendea ezagutu eta harreman berriak egiteko aukera eskaintzen du.**

Beste egitasmorik ba al duzue esku artean? Gure asmoa da astean behin irteeraren bat antolatzea herrian bertan, eta hilean behin-edo, beste herrietako bidedorrietara joatea. **Horrez gain,** noizbehinka *master class* erako saioak antolatzaeko asmoa ere badugu, teknika espezifikoak (slaloma, jeitsiera, abiadura, hockeya...) lantzeko.

Oñatin gero eta zaletasun handiagoa dago patinatzeke, eta Tatarraz taldearen helburua da patinatzaile horien guztien bilgune edo topaleku izatea; patinajeaz elkarrekin disfrutatzea.

IKER BALADRON, HOCKEY JOKALARIA



Hanka-Labanka taldean ari da Iker

Hockey-a kirol nahiko ezezaguna da Oñatin, baina Bergarako Hanka-Labanka elkartearen badaukate hockey taldea, eta bertan dihardu Iker Baladrón 20 urteko oñatiar gazteak.

Kiroldegian antolatzen diren uda kanpainako patinaje ikastaroetan ikasi zuen patinatzen Ikerrek mutiko koskorra zela, eta hockey-a probatzeko aukera ere izan zuen Josean Iñarra bergararraren eskutik. Askok gustatu omen zitzaion eta urte batzuk beranduago Bergarako taldean sartzea erabaki zuen. Patinatzeke teknika landu zuen han eta, poliki poliki, hockey-an murgiltzen joan zen. Gaur egun Euskal Ligan konpetitzen dute, Araba, Bizkaia eta Errioxako taldeekin batera.

Lau gurpilak lerroan dituzten patinekin jokatzen den *Hockey-linea* modalitatean aritzen dira. *Patin-hockeya* (gurpilak paraleloan dituzten patinekin egiten dena) baino askoz azkarragoa da. *Izotz-hockeyaren* antzekoa da, baina lehorrean jokatzen dena, egurrezkoedo porlanezko zoruetan, edo sintetikoetan. Jokalariak abiadura handia hartzen dute, eta beraien arteko kontaktua baimenduta dago, baina indarkeriarik gabe.

Argazkian ikusten den moduan, metro eta erdi inguruko *stick* edo makila erabiltzen dute, eta *puck* izeneko kautxozko diskoa sartu behar dute aurkariaren atean. Bost laguneko taldeetan jokatzen dute eta, babesgarriak eramaten dituzte gorputz osoan.

Ondo eta azkar patinatzen jakitea oinarrikoa da, jakina, hockey-an aritzeko, baina ez da nahikoa; "stick-arekin diskoa gidatzen ikasi behar da, eta mugimendu guztiak koordinatzen. Prezisia edo doitasuna ere oso inportantea da, kantxa txikiak direlako, eta puck-a aurkariari emanez gero, arrisko egoera bat sortzen duzulako. Taldean jokatzen jakitea oso inportantea da" esan digu Ikerrek.



ZURICH
M^o del Mar Urrutia Negueruela
Mozkoti Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER
ETHEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PESUPARRAK, LERRAK, LAMU ELURKATZEAK, ANBIAK, PINTURAK, LARRAK...
DISKONERTZIALE ETA MINUTZETZ MILEA
BERRAZALAK, BERRAZALAK ETA ASKATZE SANGARRAK
ABARUA 12.8-4.000 - ZINGOZ ERROBI - BERRAZALAK
695 78 91 04 - 943 04 47 77

MENDI ASTEA



11

AZAROAK, ASTEARTEA
Kultur etxean, 19:30

'Segurtasuna mendian'

Zuriñe Foronda mendi federazioko sorospen taldeko kideak segurtasunaren inguruko hitzaldia emango du. Mendira joan aurretik hartu beharreko neurriez (eguraldia, ibilbidea, materiala...) eta ezbeharren bat gertatuz gero nola jokatu behar den azalduko du.




14

AZAROAK, OSTIRALA
Kultur etxean, 19:30

'Montañas panorámicas'

Aloña Mendik antolatzen duen 'Mendia eta Natura' argazki lehiaketako sari banaketa egin ondoren, Santiago Yaniz argazkilari-erreportari bizkaitarrak hitzaldia emango du, bere argazkiak erakutsi eta mendiko panoramika ederrak ateratzeko aholkuak emanez.



santianiz.blogspot.com

18

AZAROAK, ASTEARTEA
Kultur etxean, 19:30

'Porrotaren alde'

ALBERTO IÑURRATEGI

Gaur egun goi-mendiaren inguruan dagoen ikuspegi estandarren alde txarrak azalduko ditu alpinista atxabaltarrak. Besteak beste, Everest gailurrera iristeko dena zilegi ez dela esango du, eta beste mendi asko daudela munduan oraindik igotzeko.



basqueteam.com

19

AZAROAK, ASTEAZKENA
Kultur etxean, 19:30

'Mongolia eta Sahara zaldiz'

'Zaldiz mugarik gabe. Saharako basamortuan eta Mongoliako estepan eta taigan zehar'. Mila Gallastegi eta Asier Aranguren bidaiariak egin duten azken bidaiaren inguruko ikus-entzunezkoa.



ZINE KLUBA: 'INTO THE MIND'

(azaroak 20, kultur etxean, 20:00)

Muturreko eskiaren inguruko filma, irudi ikusgarriekin. Himalaya, bolivia eta Alaskako paisaia ederrez gozatzeko aukera.



MENDIAN FEDERATZEKO KANPAINA

2015

Aloña Mendiko Mendi sailak 2015erako federatu kanpaina jarri du martxan. Aurtengo federatuei automatikoki berri-tuko zaie txartela, kontrakorik esaten ez badute.

Federatu berriak egiteko edo federatu txartelean aldaketa egiteko, bi aukera daude: Aloña Mendiko egoitzatik pasa, edo Internet bidez datuak eman. Telefonoz ezin da tramitatu.

Aloña Mendiren egoitzan azaroaren 10 eta 12an (19:00-21:00) egin ahal izango dira. Internetez egiteko alona.federatuak@gmail.com helbidera bidali behar dira datuak azaroaren 14a baino lehen.

Hilaren 17 eta 23 bitartean dagokion kuota kobratuko da banketxetik, eta urtea amaitu baino lehen postaz bidaliko dira txartel berriak etxera.

Txartelak tramitatzeko datu hauek behar dira: izen-abizenak, jaiotze data, helbidea, NAN zenbakia, telefonoa, emaila, kontu korrontearen zenbakia, federatu maila (Euskal, FEDME) eta gehigarriak (Frantziar Pirineoa, mundu osoa, BTT, pistako eskia, snowboard). Prezioak azaro hasieran onartuko dira mendi fede-razioaren asanbladan.

**DATORREN URTEAN
ALOÑA MENDIKO
EDOZEIN IRTEERATAN
PARTE HARTZEKO
FEDERATUTA EGOTEA
ESKATUKO DA**

ZURRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

'1953, HISTORIA PEDALKADAZ'

Oñatin jokatu zen Munduko Ziklo Kros Txapelketari buruzko dokumentala egin du Aitor Biainek

Aitor Biain kazetari oñatiarrak '1953, historia pedalkadaz' izeneko dokumentala egin du, Oñatiko txirrindularitzaren hasierako urteetako historia eta, bereziki, 1953an Oñatin jokatu zen munduko ziklo kros txapelketako irudi, dokumentu eta testigantzak bilduz.

Biainek RTVEko NO-DOKo irudiak erabili ditu, eta munduko txapelketa hura bertatik bertara bizi izan zuten testigantzak ere jaso ditu; hala nola, Espainiako selekzioko kide gisa parte hartu zuen Jose Mitxelena oiartzuarrarenak, berriemate lanetan aritu zen Gerardo Fuster kazetari kataluniarrarenak, eta Regino Biain, orduko antolakuntza taldetik bizirik dagoen kide bakarrarenak. Horiez gain, Jose Mari Jauregieltzo 'Paiko' eta Antton Elorza txirrinduzaleak eta Jerardo Elortza historialariaren adierazpenak ere bildu ditu.

Ikasketa amaierako proiektu gisa egin du dokumentala Biainek, eta orain Interneten eskegi du herritar guztiek ikusi ahal izateko moduan. 30 minutuko iraupena du eta oso lan interesgarria da txirrindularitzaren eta ziklo-krosaren inguruan Oñatik XX. mendeko lehen erdian bizi izan zituen urte oparoak ezagutzeko.



YOUTUBE-N ESKEGI DU DOKUMENTALA BIAIANEK, HERRITAR GUZTIEK IKUSI AHAL IZAN DEZATEN

Kirol arloko monitoreei zuzendutako formazio ikastaroa

Debagoieneko Kirol zerbitzuek, HUHEZI irakasle eskolarekin lankidetzan, kirol elkarteetako monitoreei zuzendutako ikastaroa antolatu dute. Neska-mutikoekin lan egiten duten kirol monitoreentzako oinarritzko eta ezinbesteko formazioa. Izen-ematea, **azarioaren 12ra** arte: kirolak@eskoriatza.net /943715328

Sara Gomez garaile Lasarteko krosean

Aloña Mendi Atletismo taldeko Sara Gomez gazteak urriaren 26an jokaturako Lasarte-Oria krosaren XIX. edizioa irabazi zuen Junior mailan. Sarak 47:07an osatu zuen 10,5 km.-ko ibilbidea.

Markelen Lagunartearen bazkaria azaroaren 15ean

Markel Irizar txirrindulariaren lagunarteak azaroaren 15ean egingo du denboraldi amaierako bazkaria Zotz tabernan. Hilaren 12ta arte eman daiteke izena Oñati, Izarraitz eta Zotz tabernetan, 10€-ko fiantza jarrita.

Arkauz zure etxea da.

ARKAUZ
GRUPO

ARETXABALETAKO 1950 - 2014 ARRASATE

60 urte baino gehiago

Product categories shown: **ARETXABALETAKO** (tiles), **ARETXABALETAKO FLEX** (flexible tiles), **ARETXABALETAKO MOBIL** (furniture), **ARETXABALETAKO FLEX** (flexible tiles), **ARETXABALETAKO CELER INSTALAT** (fast installation), **ARETXABALETAKO ELECTRODOMESTICOS** (home appliances).

UDAL LIBURUTEGIAN AZAROAN

OSTEGUN KONTALARIAK



Ipuin kontaketa saioa 6-10 urteko haurrentzat

Hilero bezala, azken ostegunean ipuin kontaketa saioa egongo da haurren liburutegian. Hil honetakoa **azaroaren 27an** izango da, 18:00etan Lur Usabiagaren eskutik 6-10 urte arteko neska-mutikoentzat. Gonbidapena eskatu behar da haur liburutegian bertan, aurreko astean zehar.

TERTULIXAN-Irakurle Taldeak

Udal liburutegiko euskarazko irakurle taldea azaroaren 18an (18:30) elkartuko da, aurretik irakurri duten Julen Gabiriaren **'Han goitik itsasoa ikusten da'** liburua komentatzera. Gaztelarazko taldeak berriz hilaren 25ean (18:30) du hitzordua, Philip Roth-en **'Patrimonio'** liburuaren inguruan.

Asteburu honetan emango dute LOREAK filma Oñatin

Datorren asteburu honetan (azaroak 7-10) ikusmin handia piztu duen 'Loreak' filma ikusteko aukera izango dugu kultur etxeko zine aretoan, estreinalditik astebetara.

Moriarti ekoiztetxeko Jose Mari Goenaga eta Jon Garañok zuzendutako film hau Donostiako zinemaldiko sail ofizialean aurkeztu zen, eta saririk jaso ez bazuen ere, zine adituen aldetik oso kritika onak jasotzen ari da. Berriki, Tokioko nazioarteko jaialdian aktore onenaren saria jaso dute 'Loreak'-eko protagonistek.

Loreak filmak lore sorta bana modu anonimoan jasotzen hasten diren hiru emakumeren istorioa kontatzen du.

Lore sorta xume horiek goitik behera aldatuko dute hiru emakumeren bizimodua, ahaztuztat zituzten sentimenduak azaleratuz.

Gogoratu, Moriarti ekoiztetxeko kide den Aitor Arregi zinegile oñatiarrak ere parte hartze zuzena izan duela film honetan, ekoizte-eragile eta gidoilari lanetan jardín baitu.



OÑATIKO VII. BERTSOLARI TXAPELKETA

- ▶ Azaroaren 29an eta abenduaren 6an jokatuko dira kanporaketak, eta abenduaren 20an finala.
- ▶ Hamabi bertsolarik parte hartuko dute

Bi urteren ondoren hemen da berriz ere Oñatiko Bertsolari Txapelketa. Bertso Eskolak antolatuta, hamabi lagun ariko dira 2012az geroztik **Maider Arregiren** buruan dagoen txapelaren bila. Txapeldunarekin batera, **Egoitz Aizpuru, Urko Egaña, Iñaki Olalde, Xabier Paskual, Ander Lizarralde, Gorka Larrea, Joseba Lasagabaster, Josu Igartua, Andoni Goitia, Urko Arregi** eta **Gontzal Belategi** ariko dira. Azken bientzat aurreneko aldia izango da.

Bi kanporaketa saio jokatuko dira, azaroaren 29an eta abenduaren 6an, Gaztetxean eta Arrano elkartearen. Finala abenduaren 20an jokatuko da Gaztelekuan.

Aurreko sei ediziotan Rufino Alkorta (1965), Andres Kortza-barria 'Gorordo' (1968-1969), Josu Igartua (2007), Joseba Lasagabaster (2008) eta Maider Arregik (2012) jantzi zuten txapela.



Azkenengo edizioko (2012) sei finalistak. Maider Arregik jantzi zuen txapela.



Bertsotarako gaiak proposatzeko deialdia

Oñatiko bertsozaletasuna kontutan hartuta, Bertso Eskolak herritarren parte-hartzea sustatu nahi du eta, hala, bertsotarako gaiak proposatzeko kaxak jarri ditu herriko zortzi tabernatan (Ongi, Boga, Aloña, Pako, Izarraitz, Arrano, Artxubi eta Antixena Gaztetxea). Ez dituzte proposamen zehatzak bakarrik eskatzen; ideiak, egoerak edo bururatutako kasuak ere jaso nahi dituzte parte-hartze aukera zabaltzeko. Gero, txapelketako jai-jartzaile taldea arduratuko da kutxetako gaiak eta ideiak hartu eta saioetara txertatzeaz.

Parte hartzen duten guztien artean Oñatiko produktuz osatutako otarre bat zozkatuko da. Beraz, izena eta harremanetarako zenbaki bat jarri behar da txartelean. Azaroaren 16a da proposamenak egiteko azken eguna

Antonino Ibarrendoren omenezko musikegunak

Antonino Ibarrendo musikari eta konpositorearen jaiotzaren mendeurrena betetzen da aurten, eta haren omenezkoak izango dira aurtengo Musikegunetako hiru kontzertuak azaroaren 9, 16 eta 23an. Antonino zenaren biografia eta haren musikarekin grabatu duten CD bat ere aurkeztuko dute



Oñati, Sestao eta Bilboko musika bandak zuzendu zituen Antoninok

Antonino Ibarrendo Oleaga (1914-1985) musikari eta konpositorearen jaiotzaren mendeurrena betetzen da aurten, eta, horregatik, hari eskainita egongo dira oso osorik aurtengo Oñatiko Musikegunak. (Ikus egitaraua 33. orrian)

1914ko ekainaren 12an jaioa, aitarengandik jaso zuen musikarako zaletasuna Antoninok. Felix, bere aita, herriko musika banda ezberdinetan aritzen zen, eta harekin egin zituen aurreneko ikasketak etxean bertan. Gero, Jose Ramón Candaudapekin (abade eta organujole oñatiarra) jarraitu zuen, eta Bilbon burutu zituen ikasketak ofizialak, Jose Franco Ribate konposatzailearekin. Solfeo eta armoniaz gain, klarinetea, pianoa eta tuba ikasi zituen, baina

MUSIKAGILE OPAROA

INSTRUMENTISTA APARTA ZEN ANTONINO, BAINA SORTZAILE GISA ERE IZUGARRIZKO LANA EGIN ZUEN; BERAK KONPOSATUTAKO 300DIK GORA OBRA DAUDE KATALOGATUTA

beste hainbat instrumentu ere jotzen zituen. Gaitasun itzela zuen instrumentista gisa.

SORTZAILE OPAROA, PEDAGOGO BIKAINA

Instrumentista bezala gaitasun aparta zuen, baina sortzaile eta irakasle bezala ere izugarritzko lana egin zuen Antoninok. Berak sortutako 300dik gora pieza daude katalogatuta, arlo ezberdinetan. Euskal obertura eta rapsodiak, dantzarako doinuak (baltsak, habanerak, foxak, biribilketak, fandango eta ariñ-ariñak...), euskal dantzen bildumak, prozesioetarako martxak, eta Oñatiko danborradarako piezak, besteak beste. Donostiako Errealarentzako ereserkia ere konposatu zuen enkarguz, nahiz eta ez zen sekula ofizial egin. ➔



BIKOITZ
jatetxea

Tel. 943 78 24 83

- Gosari eta hamarretakoak
- Eguneko menuak
- Aste bukaerako menu bereziak
- Plater konbinatuak
- Karta
- Razioak
- Era guztietako bokadilloak
- Hamburgesak

Instrumentazio mailan, konposatzaile handien Mozart, Beethoven, Back, Haydn, Rossini...) obrak moldatu zituen bandarako. Hain zuzen ere, ekarpen garrantzitsu horren aitorten gisa, Gipuzkoako Banden Federazioak omenaldi beroa eskaini zion 1992an.

Irakasle eta hezitzaile gisa ere lan bikaina egin zuen Antoninok. Hogeita hamar urtez Oñatiko musika bandako zuzendaria izan zen, eta urte horietan guztietan lan handia egin zuen bandako kideei formazioa ematen. Bere etxeko atea beti zeuden zabalik musika ikasleentzat eta, hala, hainbat belaunalditako herritarrek ikasi zuten solfeoa eta instrumentoren bat jotzen Antoninorekin. Kontserbatorioko maisuak ere harrituta geratzen omen ziren Antoninorekin ikasitakoek azterketetan erakusten zuten maila altuarekin.

Gero, Sestaoko bandaren gidaritza hartu zuen, musika-eskola bat sortu zuen bertan, eta han ere arrakasta handia izan zuen, 400dik gora ikasle izateraino.

MUSIKA BANDAKO ZUZENDARI

Antoninok 1940an hartu zuen herriko musika bandaren gidaritza, eta 30 urtez izan zuen kargu hori. 1970ean, arrazoi ezberdinengatik, Oñati musika bandarik gabe geratu zen eta, orduan, Sestaoko bandaren zuzendaritza hartu zuen. Garai hartan Gipuzkoa osoan hiru ziren bakarrik banda-zuzendari titulodunak: Antonino Ibarondo, Gonzalez Bastida eta Francisco Escudero. Handik gutxira Bilboko bandatik deitu zioten zuzendari lanerako, eta han jardun zuen jubilatuta arte.



Antonino musika bandako buru dela Korpus eguneko prozesioan.



Goian, Udalak egin zion omenaldiko irudia. Ezkerrean tuba jotzen. Eskuman, bilboko bandako jantziarekin



IRAKASLE BIKAINA


IRAKASLE ETA HEZITZAILE GISA ERE LAN BIKAINA EGIN ZUEN ANTONINOK. OÑATIKO BANDAKO ZUZENDARIA IZAN ZEN 30 URTEETAN LAN HANDIA EGIN ZUEN BANDAKO KIDEEI FORMAZIOA EMATEN. BERE ETXEKO ATEAK BETI ZEUDEN ZABALIK MUSIKA IKASLEENTZAT

Antonino Ibarondoren biografia eta musika antologia

Antonino Ibarondoren biografia eta berak konposatutako musikarekin grabatutako CDa argitaratu dituzten haren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko.

Liburua Jose Antonio Azpiazu eta Xabier Ugartek idatzi dute. Antoninoren bizitza eta obra ez ezik, bere ikasle izandagoen testigantzak ere biltzen ditu, eta baita Oñatiko musika bandaren historia ere.

CDak berriz Antoninoren garai eta estilo ezberdinetako 14 obra biltzen ditu, denak ere aski popularrak eta ezagunak oñatiarrentzat. Herriko musika taldeek (musika banda, txistulari taldea, Oñati Abesbatza, Ganbara abesbatza, parrokiako abesbatzak) grabatu dute Iñaxio Ibarondoren zuzendaritzapean.



Musikegunetako hiru kontzertuetan salgai egongo dira liburua eta CDa 5na eurotan. Hortik aurrera, turismo bulegoan eta Txokolatexan 6na eurotan.

MUSIKEGUNAK - 2014**ANTONINO IBARRONDORAREN OMENEZKO HIRU KONTZERTU**

deia.com

FÉLIX IBARRONDOren musika ENSEMBLE SINKRO-ren eskutik

- AZAROAK 9, IGANDEA
- SANTA ANA ARETOA, 19:00
- SARRERA DOAN

Antonino Ibarroondoren omenezko musika jardunaldiari hasiera emateko haren seme Felix Ibarroondoren musikaz gozatzeko aukera izango dugu azaroaren 9an.

1943ko ekainaren 12an jaioa, Felixek aitarekin egin zituen solfeo eta armonia ikasketak. Gero, Juan Cordero maisuarekin ikasi zuen musika-konposizioa, eta Bilboko kontserbatorioan lortu zituen piano eta konposizio diplomak. Apaiz ordenatu berritan Parisera joan zen eta bertan bizi da 1970az geroztik. Han sakondu zuen bere formazioa maisu handien ondoan. Musika garaikidearen arloan nazioarteko proiektu handiena duen euskal konpositorea da, eta bere obrak musikaririk onenek interpretatzen dituzte.

Oñatiko kontzerturako bere ibilbideko garai ezberdinetako bost obra aukeratu ditu. Gainera, horietako biren kasuan ('Aitaren etxea' eta 'Vent d'exile') estreinaldiak izango dira. Pianoa, bibolina, flauta, perkusioa eta ahotsendako konposatutako obrak dira.

Gasteizko Ensemble Sinkro taldeak interpretatuko du musika, baina Felix bera ere Santa Anan izango da, eta hainbat azalpen emango ditu, bere musika hobeto ulertzen laguntzeko entzuleei.

Felixek aitortu digunez, Oñatiko herria oso barruan darama, eta ilusio berezia egiten dio bere aitaren omenez antolatutako kontzertu honek. Antoninori buruz nabarmendu digu musikari eta bere herriari emana bizi izan zela.

OHARRAK: Hiru kontzertuak **dohainik** izango dira. Felix Ibarroondoren **Santa Ana** aretoan izango da eta aurrez **gonbidapenak** hartu beharko dira Txokolateixan edo kultur etxean. Bilboko Musika Bandaren kontzertua eta herriko musika taldeena Mikel Deunaren **parrokian** izango dira.

BILBOKO UDAL MUSIKA BANDAREN kontzertua

- AZAROAK 16, IGANDEA
- PARROKIAN, 19:00
- SARRERA DOAN



Azaroaren 16ko kontzertua ere berezia izango da. Bilboko Udal Musika Banda etorriko da Oñatira, zuzendari izan zuen Antonino Ibarroondori gorazarre egitera. Bilboko musika banda 1895ean sortu zen José Sainz Basaberen zuzendaritzapean. Entzute handikoak dira Arriaga edo Euskalduna jauregian eskaintzen dituen musika zikloak, askotan izen handiko musikariak lagun dituela (Pedro Iturralde, Kepa Junkera, Oskorri...). Hainbat disko grabatuak ditu. Mikel Deunaren Parrokian eskainiko duen kontzertuan Antonino Ibarroondoren zazpi obra joko dituzte Iñaki Urkizuren zuzendaritzapean: *Lazos de lealtad* (pasodoblea), *Ibar aldian* (obertura), *S.E.E.I* (martxa), *Tancredi* (Obertura), *Oñate* (zortzikoa), *Baskaldukan-bapo* (Aires Vascos-3) eta *Aloña Mendí*.

OÑATIKO MUSIKA TALDEEN kontzertua



- AZAROAK 23, IGANDEA
- PARROKIAN, 19:00
- SARRERA DOAN

Musika Banda, Txistulari taldea, Ganbara Abesbatza, Parrokiako Koruak eta Oñati Abesbatza

Musika jardunaldiak borobiltzeko herriko musika taldeen kontzertua izango dugu, Iñazio Ibarroondoren zuzendaritzapean, honen aita Antoninok idatzitako obrak interpretatuz. Garai eta estilo ezberdinetako obrak izango dira, denak ere oso popularrak eta ezagunak oñatiarrentzat: 'Oñate' zortzikoa, 'En una tarde de mayo' habanera, 'Bere aldian' fandangoa, 'Txanton Enea', 'Korputzetako Arku Dantza' obertura... Gozatzeko moduko kontzertua izango da, Antoninoren omenezko musika jardunaldiak amaitzeko modu ezin hobea.

AZAROKO AGENDA

ANTZERKIA / 3-9 urteko umeentzat



**azaroak
15**

Udal Kultura sailak antolatuta, *Glu Glu* antzerki taldearen '3 txerrixoak eta otsoa' lana taularatuko da Santa Ana antzokian, azaroaren 15ean (17:00, sarrera 3€). Galder Perezek sortu eta zuzendua, hiru txerrixoen ipuin klasikoan oinarritutako ikuskizuna da, gaur egungo kontestura moldatuta. Hiru txerrixoek hirigunera bizitzera joatea erabakitzen dute. Hiriko giroa (zarata, kutsadura, argiak...) zaila eta arrotza egingo zaie hasieran, eta neurria hartu dietela uste dutenean arriskurik handiena ezagutuko dute: otso maltzurra. Komedia, jolas, dantza eta abestien bitartez hiriko bizitza berria, dibertigarria eta osasungarria posible dela erakutsiko dute.

azaroak

23

**KONTZERTUA PAKO TABERNAN
'YAKUZAS' ROCK TALDEA**



Madrilko laukotea. 'Rock Villa de Madrid'-eko 34. lehiaketa irabazi zutenetik ez dira geratu. "Chamberí Rock City" beraien lehen argitalpena rock & rollaren jarraitzaile den edozeinendako erreferente bilakatu zen argitaratu orduko, adituek diotenez. Zuzenekoetan *Burning, Corizonas, Jim Jones Revue, Warrior Soul...* taldeekin aritu izan dira beraien garaje-rock sutsuaz egurra ematen. Oraingoan 'Matagrosso' euren azken argitalpena aurkezten izango ditugu. *Igandea, 19:30.*

azaroak

19

**SANTA ZEZILIA OSPATUKO DUTE
MUSIKA ESKOLAKOEK**



Musikarien zaindaria den Santa Zeziliaren eguna ospatuko dute aurten ere Jose de Azpiazu Musika Eskolakoeak.

Aurrena bi kalejira egingo dituzte arratsaldeko 17:00etan hasita. Alde batetik Etxaluzetik plazarainoko bidea egingo dute akordeoi, trikiti eta panderojoleek. Bestetik, plazan hasi eta Kale Zaharreko buelta egingo dute metal eta haize taldeek.

17:30etan pilotaleku ondoko azoka-plazan elkartuko dira denak eta jaialdia eskainiko dute bertan. Festa borobiltzeko, txokolate beroa banatuko zaie bertaratzen diren guztiei, 18:00etan.

ANE MERTZERIA

- Joateko zarak
- Lantzeria
- Umeen jantzizak

Kale Barris, 54 DNATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



Oñatiko Laburmetrai Rallya *azaroaren 8an ospatuko da*

Larunbat honetan, azaroak 8, ospatuko da Oñatiko Laburmetrai Rallyaren 5. edizioa, zinea eta euskara uztartzen dituen ekitaldia. Ohi bezala, lehiakideek 11 ordu izango dituzte lanak burutzeko (gidoia prestatu, sekuentziak grabatu, editatu...). Goizeko 8etan elkartuko dira Gaztelekuan. Bertan jakinaraziko zaie aruten landu beharreko genero zinematografikoa eta *leitmotiv* gisa erabili beharko duten objektua. Ondoren, eta nobedade moduan, antolakuntzak gosaria eskainiko die partehartzaile guztiei.

Hortik aurrera, arratsaldeko 7ak arteko tarteak izango dute lehiakideek laburmetraia egiteko; gutxienez minutu bateko iraupena izan beharko dute lanek, eta gehienez hiru minutu. (Partehartzaileek beharrezko materiala (kamera, ordenagailua, jantziak...) eraman beharko dute.



luz 15 taldek eman zuten izena, denak Oñatikoak, eta Txantxiwood izeneko taldeak irabazi zuen lehen saria 'Doinu galduak' lanari esker.

proiektzioa egingo da Santa Ana aretoan. Ikusleen gustokoena den lanak ere 100€ko saria jasoko du. olrallya.wix.com helbidean daude ikusgai aurreko edizioetako lanak, eta aurtengo rallyko egitaraua eta oinarriak.

Iluntzeko 21:30etan, rallya aurkeztutako lan guztien proiektzioa egingo da Santa Anan

SARI BEREZIAK

Sarietan ere izango da nobedaderik aruten. Alde batetik epaimahaiak aukeratutako hiru lanek 300€, 150€ eta 100€-ko sari bana jasoko dute. Horiez gain, aktore eta aktorea onenentzako sari bana ere izango da aruten.

Iluntzeko 21:30etan, epaimahaiaren berri eman aurretik, rallya aurkeztutako lan guztien

GAZTETXEAN AZAROAN

AUTOFORMAKUNTZA SAIOA

Azaroak 11, asteartea: 'Elikadura inperiak nekazaritza kapitalaren aroan' autoformakuntza arratsaldeko 18:30an.

KAFE-TERTULIA: 'SAHARA'

Azaroak 16, igandea: Saharari buruzko kafe tertulia. Abuztuaren Saharako lurralde okupatuetara brigadista joandako bi oñatiar eta Oñatiko saharar bat izango ditugu berbetan.

GAZTETXE TOPAKETAK

Azaroak 21, 22 eta 23: Bailarako gaztetxe topaketak Arrasaten. Urtero bezala, esperientziak trukatu, zenbait gaien gainian formatu, eztabaidatu eta ondo pasatzeko tartia. Jardunaldian lotarako eta otorduetarako eukera ere izaten da.

KONTZERTUAK. Diario Fatxo-ekin elkartasun gaua

Azaroak 28, ostirala. Kontzertu paregabek izango ditugu intoxikazio mediatikoari eurre egiten dion herri ekimena diruz laguntzeko:

- Zurraia, Kuraiaren bertsiak (Oñati).
- BENEH, Beldurra Eta Nazka Euskal Herrian. Musika dantzagarria eta abesti bortitzak. (Oñati)
- D-Pintxos, rock erromeria. Turutak, erritmo alaiak eta giro aparta. (Legazpi)

BERTSO TXAPELKETA

Azaroak 29, larunbata: Oñatiko bertso txapelketako kanporaketa. Herriko bertsolariek daukaten mailarik onena emango dute.

ASANBLADAK

Larunbatero, 11:30 gaztetxian.

GAZTETXEKO BARRA

Ostiral eta zapaturo zabalik 18:00tik 24:00ra

ARRI
Industria Hornidurak
Burdindegia
Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

Orain Oñatiarron zorhitzura!

NI
moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

GABON OSTEKO SARIXA

Orain dala lau hillabete argittaratu zan 'Oñatiko Euskera' liburua. Denboratxo bat pasauta, Euskera Zerbitzuak balantzia egin gura dau liburuari emundako ebalera eta probetxuaz.

Horretarako, Gabonetan jolas egin edota hausnarketarako, lehiaketa bat antolau dau, eta gertu dittu Txantxi batzuk be banaketako sarittan.

PARTE-HARTZEKO BI MODU:

1. Ariña, galdera honi erantzunda: zenbat txantxiku irudi agerketan dira liburuan (azala, CDia...)? Hiru sari, 50 Txantxikuak, liburuan txantxiku gehixen topaitten dauenen artian zozketauko dira.

2. Sakona, zure kritikak eta ekarpenak bialduta: zer kendu, erantsi, zuzendu, argittu... Zer daguen faltan edo sobran. Hiru sari, 50 Txantxikuak, ekarpen onenak egitten dittueñeintzako. Ekarpen danak aztertu eta hartuko dira kontuan.

Erantzunak/ekarpenak Euskara Zerbitzura eruan edo bialdu bihar dira, helbide elektronikoa honetara: euskera@oinati.net. Azken eguna: 2015 / 1 / 11. Sari-banaketia: 2015 / 1 / 22.

Epaimahaixa: liburuaaren egilliak osotuko daue. Honeik gertu dagoz ekarpen guztiak euren egilliakin eztabaiketako.

Txantxin, Txantxin, diruaren hotsa, haretxek emuten dost...



50 TXANTXIKO sei sari zozketatuko dira parte hartzen dauenen artian

Hastapen mailako FIELTRO IKASTAROA

AZAROAK 22

Azaroaren 22an Fieltro teknikaren hastapen mailako ikastaroa emango du Conchi Morenok. Ordu eta erdiko ikastaroa izango da eta, konkretuki, Fieltro heze edo bustiaren teknika azaldu eta erakutsiko du.



Ur beroa edo lurruna erabiliz eta elkarren artean igurtziz, artilearen fibrak konpaktatzean datza fieltro hezearen teknika. Modu horretan material berezi bat lortzen da, ehundu gabeko tejido bat lortzen baita.

Teknika honen bidez ehun edo tejido lauak egin daitezke, eta bolumena ere landu daiteke.

Ikastaro honetan, materiala eta teknikarekin praktikatzen hasteko, lepokoak, giltzatarakoak edo elementu apaingarriak egiten ikasiko dugu. Ordu eta erdiko iraupena izango du ikastarook eta bi txanda egongo dira: goizeko 9:30etan edo 11:30etan. Prezioa, 20€ (materiala eta mokadutxo bat barne). Informazioa eta izen-ematea **645499235** zenbakian.



Ongi eta Pako tabernetan eta Jon ileapaindegian ikerketarako diru-laguntzak jasotzen ari dira

MOVEMBER mugimendua hainbat nobedadeekin itzuliko da

laz bezela, aurten ere, Movember mugimendua egingo da Oñatin. Azaroa guztian zehar bibotea utziz, gizonezkoek pairatzen dituzten gaixotasunen gaineko sentsibilizazioa areagotu nahi du herritar talde batek. Aurten taldea asko handituko da eta hainbat ekimen bultzatu dituzte. Datozen egunotan kanpaina berezi bat zabalduko dute sarean, ikerketarako dirua ere batzen hasi dira eta azaroaren 29an, jai berezi bat egingo dute Ongi tabernan. Ekintza guztien azken orduko informazioa taldearen Facebook perfilean ('**Movember Oñati**') zabaltzen ari dira.

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz
'Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabiloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu'.

Baserriko kiwi ekologikoak goxo-goxoak

3 lamaina (10kg. kanik)
Haundiak 19€
Ertainak 14€
Txikiak 11€

IRABAN baserria • Tel: 943 78 18 32



KOMIKITIRA

Guardiako farmaziak

(gaueko 10ak arte)

ANDUAGA

San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Azaroak 12, 13, 21, 22, 23 eta
abendua 1 eta 2.

IGARTUA

Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Azaroak 6, 14, 15, 16, 24 eta 25,
eta abenduak 3 eta 4.

GARATE

Kale Barria 42, 943 78 05 58
Azaroak 7, 8, 9, 17, 18, 26 eta 27
eta abenduak 5, 6, 7 eta 8.

JULDAIN

Kale Barria 6, 943 78 11 28
Azaroak 10, 11, 19, 20, 28, 29 eta
30.

Guardiako taxilariak

AZAROAK 3 - 9

JOSEBA ARANZABAL
943 78 02 52 / 636 257 169

AZAROAK 10 - 16

JUAN JOSE URRRA
943 79 71 72 / 606 004 340

AZAROAK 17 - 23

JAVIER MARQUEZ
943 78 00 39 / 619 10 43 33

AZAROAK 24 - 30

JOSE LUIS RABANETE
658 732 709

ABENDUAK 1 - 7

IOSU LERTXUNDI
663 031 322

OÑATIKO TAXI GELTOKIA

943 78 03 65

MINUSBALIDOENTZAT EGOKITUTAKO TAXIA

943 400 500

Telefono interesgarriak

UDALETXEA

Udaletxea943 78 04 11
Udaltzaingoa943 08 10 00
Oñargi943 78 07 08

Gizarte zerbitzua943 03 77 00
Enplegu zerbitzua943 03 77 00
Olaburu zentroa943 71 62 73

TURISMOA

Turismo bulegoa943 78 34 53
Arrikruz Kobak943 08 20 00

KULTUR ETXEA

Kultur Etxea943 78 03 53
KZ Gunea943 02 36 72
Liburutegia943 71 61 11

EUSKARA-HEZKUNTZA

Euskaltegia943 78 24 96
Txaloka Ludoteka943 25 07 15
Txiki Txoko Haur Eskola943 71 64 05

KOMUNIKABIDEAK

Oñati Irratia943 78 20 72
Kontzejupetik943 78 20 72
GOIENA943 25 05 05

KIROLAK

Kiroldegia943 71 63 75
Aloña Mendi K. E.943 78 08 10

GAZTELEKUA

Gaztelekua943 71 60 94
Informazio bulegoa943 71 82 57
Informatika gela943 78 33 04

BESTE BATZUK

Natur Eskola943 71 60 94
Musika Eskola943 78 31 74
Helduen Eskola943 78 35 77
Bake epaitegia943 78 02 54
Korreos943 78 08 54
Notaritzia943 78 04 15
Parrokia943 78 18 98

OSASUNA

Oñatiko anbul.943 03 54 30
Larrialdi zerb.943 46 11 11
Arrasateko osp.943 03 53 00
SOS DEIAK112
Gurutze Gorria943 76 55 76
DYA943 46 46 22

ERTZANTZA

Bergara943 53 47 20

SUHILTZAILIAK

Oñati943 41 53 01

GARRAIOAK

PESA902 10 12 10
RENFE902 24 02 02

Odol ateraldia

HURRENGO ATERALDIAK

AZAROAK 14 ABENDUAK 12

Txantxiku Ikastolako aretoan
(San Juan kalea, 1)
17:30 - 19:30

Auzoetako plastiko bilketa

HURRENGO BILKETAK

AZAROAK 25

Plastiko batzea ohiko bilketa
puntuetan egingo da.
Bilketa lekuak:
Zañartu: Zuazola inguruan
Murgia: Asentsio ermitan
Olabarrieta: Bus geltokian
ETEO atzealdean

Urrutzuko garbigunea

Astelehenetik ostiralera
9:00-13:30 / 15:00-19:00
Larunbata 9:00-13:30

Tfn.: 943 78 36 67

Traste zaharren bilketa

HILEKO OSTEGUN GUZTIETAN

Traste zaharrak atera baino
lehen, 943 71 19 38 zenbakira
deitu behar da. Traste zaharrak
20:00-22:00
arteana atera behar dira.

Merkatu Txikia

Etxebizitza tasatua salgai Ugarkalden. Sukaldea, egongela, komuna, 2 logela eta 110 m²-ko terraza. Garajea eta trasteroa ere badu. Tel.: 652761437 (Oihana).

Oñati-Lasarte joan-etorria. Astelehenetik ostiralera Oñati-Lasarte (edo inguruko herriren batera) joan-etorria egiten baduzu, bidaia-gastuak konpartitu ditzakegu. Goizez joan eta arratsaldez bueltatzen naiz. Interesatuta bazaude, deitu: 663 33 95 69

Oñatin, pisua alokagai Ugarkalden. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela eta terraza. Prezioa: 650€. Deitu: 645719884

Oñatin, pisua alokagai Kale Zaharrean. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Guztiz barriztuta. Komunitadeko gastuak barne. Prezioa: 650€. Deitu: 645719884

Oñatin, pisua osatzeko pertsona bat beharko genukueen bi langile gara. Interesaturik egonez gero, deitu mesedez arratsaldeko 18:00etatik aurrera 653 748 751 zenbakira.

Garaje bat hartuko nuke alokairuan. Herriko erdigunean, ahal bada Kale Zaharra edo Errekalde aldean. Kalera ematen duen garajea nahi dut (ez dadila lurpekoa izan). Deitu: 663764511

Garajea alokatzen da Olakua auzoan. Interesatuek deitu: 610686030

Gela edo bulegoa alokatzen da. 260€. Argia, gasa eta wifi prezio barnean. Fotokopiagailua erabiltzeko aukera ere bai. Oso zentrikoa. Deitu: 652756052

Lokala alokatzen da San Lorentzo auzoko 37. atariko beheko solairuan, 42,52m²-koa. Deitu: 606 70 17 68

kontzejupetik@oinati.net / 943 78 20 72

Antxiñako fotografixia

Olabarrietako neskatilla-mutikuak gerra ostetxuan

Hirurogeta hamar urte dako argazki honek. Olabarrietako eskola- eta dotriñiumiak erakusten dosku, orduko auzoko kapillauarekin eta maixuarekin. Sasue hareittan eskolia eta erlijijua alkarren onduan ebiltzen. Hor agiri dan abade oñatiarra, **Migel Diez Umerez**, famaia zan kalia arrazoi askorengatik, eta Olabarrietan zer esanik ez. San Migel parrokixan koadjutore-kargua euki eben urte askuan eta domeka nahiz jai-egunetan Olabarrietako San Jose ermittara faten zan mezia emutera. Maixua, **Felix Igartua**, auzokua zan, **Jurgiña** base-riko semia eta ermitta ondoko lokal batian emuten zittuan eskolok.



Orduan, Araotzen izan ezik, auzuetako neskatilla-mutikuak batera ikasten euen. Gehixenak olabartarrak dira, inguruko murgittar baztuk kenduta. Goitik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue euren izenak:

Goixeneko ilaran: **Julian Elkoroiribe**, *Billar Goittikua*; **Ramon Beitia**, *Auntzerreka Barrikua*; **Andres Zubia**, *Legarrekoa*; **Migel Diez Umerez**, *Olabarrietako kapillaua*; **Emilio Ugarte**, *Ximonenekua*; **Felix Igartua**, *Jurgiñekua*, *Olabarrietako maixua*; **Joxe Mari Irizar**, *Aittaperukua*; eta **Bernabe Belategi**, *Tiruenekua*.

Bigarren ilaran: **Felix Ugarte**, *Errotakua*; **Juan Ugarte**, *Errotakua*; **Tomas Zubia**, *Muñokua*; **Jenaro Igartua**, *Igartua-Eneakua*; **Pablo Irizar**, *Aittaperukua*; **Joxe Zubia**, *Muñokua*; **Jenaro Aizpeurrutia**, *Errementarikua*; **Migel Kortabarria**, *Erretxingua*; **Eufrazio Belategi**, *Tiruenekua*; **Joxe Mari Ugarte**, *Errotakua*; **Migel Lazkanoiturburu**, *Juanpuenekua*; **Julian Elkoroiribe**, *Billar Goittikua*; **Agustin Biain**, *Arretxekua* (Murgixa); **Migel Elortza**, *Auntzerreka Zaharrekoa*; **Joxe Luis Elortza**, *Auntzerreka Zaharrekoa*; eta **Rufino Madina**, *Aixarikua* (Murgixa).

Hirugarren ilaran, erdixan: **Maria Mondragon**, *Errostakua*; **Petra Zubia**, *Legarrekoa*; **Kontxita Kortabarria**, *Erretxingua*; **Luxio Ugarte**, *Ximonenekua*; **Alberto Igartua**, *Igartua-Eneakua*; **Nemesio Zubia**, *Legarrekoa*; **Joxe Urzelai**, *Mangarikua*; **Fermin Zubia**, *Muñokua*; **Juanito Aizpeurrutia**, *Errementarikua*; **Iñazio Kortabarria**, *Eiziar Goikua* (Murgixa); **Luis Zubia**, *Legarrekoa*; **Rufino Ugarte**, *Ugarte Txikikua*; **Pablo Ugarte**, *Ugarte Txikikua*; **Joxe Leon Alzelai**, *Aiastui Haundikua*; **Xegundo Madina**, *Aixarikua* (Murgixa); **Milagros Galdos**, *Urraburukua*; **Maria Igartua**, *Billar Txikikua*; eta **Rosario Zabaleta**, *Zabalenekua*.

Laugarren ilaran, jarritta: **Felisa Orueta**, *Ixabelenekua*; **Marixabel Arregi**, *Meltxiorrenekua*; **Reyes Zubia**, *Zelabarregua*; **Rosario Alzelai**, *Fernanduenekua*; **Bixente Ugarte**, *Ximonenekua*; **Baxili Ugarte**, *Ximonenekua*; **Kontxita Elkoroiribe**, *Billar Goittikua*; **Milagros Zabaleta**, *Zabalenekua*; **Juli Urzelai**, *Mangarikua*; **Pilar Irizar**, *Aittaperukua*; **Maria Anjeles Lazkanoiturburu**, *Juanpuenekua*; **Mertxe Belategi**, *Tiruenekua*; **Sebastian Belategi**, *Tiruenekua*; **Maxima Kortabarria**, *Eiziar Goikua* (Murgixa); **Karmen Arregi**, *Meltxiorrenekua*; eta **Enkarna Irizar**, *Aittaperukua*.

Beheko ilaran, lurrian jarritta: **Benita Lazkanoiturburu**, *Juanpuenekua*; **Pilar Lazkanoiturburu**, *Juanpuenekua*; **Maria Dolores Igartua**, *Jurgiñenekua*; **Pedro Ugarte**, *Ximonenekua*; **Santiago Zubia**, *Legarrekoa*; **Joxe Irizar**, *Aittaperukua*; **Juan Joxe Igartua**, *Jurgiñenekua*; **Maria Alzelai**, *Aiastui Haundikua*; **Maria Urzelai**, *Mangarikua*; **Mari Pilar Arregi**, *Meltxiorrenekua*; **Lurdes Ugarte**, *Errotakua*; **Axun Ugarte**, *Errotakua*; eta **Felisa Aizpeurrutia**, *Errementarikua*.

J. E.

1944an ataratako fotografixa hau Fernando Lukasek eskuratu dosku. Olabarrietako auzo-alkartian ikusi leike kuadro haundi batian, eskola barrixa izandako lokalian, hain zuzen be. Argibidiak argazkixaren beheko partian datoz. Eskerririk asko olabartarreiri!

ETXEBIZITZA BERRIAK OÑATI ERDIAN

*Eraikin berria
bukatzear*

*Maiatzaren 1 Plaza,
2. zenbakian*

*3 logeletako
etxebizitza zabalak*

*Informazioa
eta Salmenta:*

Larrain S.L.

Tel.: 943 21 33 88

www.moyua.com

GRUPO **MOYUA**

Larrain
INMOBILIARIEN ERABILKETA



grupo
amuebladora
mondragonesa

58 urte baino gehiago zugandik gertu, etxeko goxotasuna sortuz



centro hogar MUEBLES

Sofa leku

koltxoi leku

HANAK

Zigarrola 1 • Tel.: 943 71 10 12 • ARRASATE